

1919tik | 2.624 zenbakia | 2018/12/09 | 3,90 € | argia.eus



ARGIA

1919-2019

BADATOR MENDEURRENA





**Zer
emateko
prest zaude?**

**Eta zer
jaso
nahi duzu?**

**INDARTU DEZAGUN INDARTZEN GAITUENA
EZAGUTU HARPIDETZA EREDU BERRIA**

📞 943 371 545

www.argia.eus/eginargiakoa

🐦 #ArgiaJendea

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Aktualitatea
- 7 Gaizki erranka
- 7 Ez hanka ez buru
- 8 Ekonomiaren talaian

IRITZIAK

- 15 June Fernández
- 16 Anuntxi Arana
- 17 Kimetz Arana
- Leire Narbaiza
- 18 Bea Salaberri



AZALA:
ARGIAKO ARTXIBOA

- 35 DENBORAREN MAKINA
- 36 BIZI BARATZEA
- 38 ARGIAKO AZOKA
- 39 ARGIAKO KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
MIKEL URIARTE
- 54 BERANDUEGI

Tolesdurarik gabeko izara zuriak eta garbiak ohe gaineen, norbere etxean topatzea zaila den txukuntasuna. Baina zer ezkutatzen dute hoteletako gelek irudi horren atzean?

SAKONEAN

- 10 | Pello Reparaz: "Zerbait berria egin ahal izateko Vendetta amaitzea ezinbestekoa zen" / Reyes Ilintxeta
- 20 | ARGIAk 100 urte: Denon ondarea, denon esku / Urko Apaolaza Avila
- 26 | Euskaraldia: Ikusgaitasuna, konplizitatea eta konpromisoa / Onintza Irureta Azkune
- 30 | Valeri Kharlamov: Begoñitaren semea / Ander Leon Nanclares
- 32 | Hoteletako garbitzaileak: Bost izarreko esplotazioa / Malen Aldalur Azpillaga
- 40 | Komikia leku bila, hitza nagusi den lekuan / Gorka Bereziartua Mitxelena
- 44 | Euskararen jatorria, Pello Mari Otañoren biloba *Beltxak* azaldutako zientzia fikzioa / Estitxu Eizagirre Kerejeta

ALDIZKARI HAU IRAKURRI OSTEAN, EMAN NORBAITI EDO UTZI LEKU PUBLIKO BATEAN. BILDUMAGILEA EZ BAZARA, NOSKI.

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA ARGIA JENDEAREN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE




**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**



Gipuzkoako Foru Aldundia



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L.
Ametzagaiña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza.
Zuzendaria: Estitxu Eizagirre.
Erredakzioa: Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Gorka Peñagarikano, Iñigo Igartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Maitane Gartzandia, Txentxo Muñoz.
Argazkilaria: Dani Blanco.
Produktzioa eta inprimaketa: Antza S.A.L.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.

DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Web garapena: Asier Iturralde.
Informatika: iametza interaktiboa, S.L.
Lege gordailua: SS 837-2012.
ISSN: 0213-909X.
Batzorde parekidea: 72562 E.
HELBIDEAK:
Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel.: 943 371545.
Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.
POSTA ELEKTRONIKOAK:
Komertziala: komertzial@argia.eus
Harpidetza: harpide@argia.eus
Erredakzioa: kazeta@argia.eus



PANORAMA

Burokraziak zenbaki bihurtuta

Ehunka lagun kalean lotan. Gauak bata bestearen atzetik. Hotza eta euria lagun. Gisa horretan asteak pasatzen ari dira Madrilen ehunka migratzaile. Asilo eskaera bideratzeko bere txanda noiz helduko denaren zain. Ume, heldu zein adineko. Egunero Espainiako Poliziak pertsona bakan batzuk baino ez ditu artatzen, gainerakoak kale gorrian utzirik. Burokrazia eta gizatasuna. Konpondu ezinezko bikotea. Irudian: Bi lagun, gauari aurre egiteko prest, plastikopean atertuta.

Argazkia: Olmo Calvo Rodriguez · Testua: Axier Lopez



t “Ezin ulertu zergatik ateratzen diren ‘Ahobizi’ txapadunak gazteleraz hitz egiten Teleberrian...”

@EstiZabala

t “Zenbat kostatzen den pertsona batzuekin ohiturak aldatzea eta euskaraz egitea, ze barne eztabaida sortzen den norberaren buruan”

@KoldoTellitu

t “Ez daukat ez indar, ez gogorik, inor seduzitzeko. Konformatzen naiz nire eskubideak errespetatzen badira, eta euskaraz bizitzen uzten badidate esparru guztietan, ez haurrarekin eta animaliekin soilik”

Oier Aranzabal, ZuZe

t “Antsoaingo Udaletxeko balkoitik Euskaraldia pankarta eskegita. Hori bai, umea herriko udal haur-eskolan euskaraz noiz matrikulatu ahal izango dugun ez dakigu”

@NEscaloni



Iñigo Cabacas auzian, bi urteko kartzela-zigorra ertzainetako bati

Argia

Iñigo Cabasen heriotzagatik kondenatutako ertzainak ez du kartzelara sartu behar izango, baina lau urteko inhabilitazioa ezarri dio Bizkaiko Lurralde Auzitegiko epaimahaiak. Ertzainek jaurtitako pilotakaden ondorioz hildako Iñigo Cabacasen auziko epailetan zigortu bakarra izan da: Juan Jose de Pablo ofiziala, gertakarien unean bertan zegoen arduradun nagusia. Epaituriko gainerako ertzainak absolbitu egin ditu Bizkaiko Lurralde Auzitegiko epaimahaiak.

Homizidio larriagatik akusaturik zeuden hiru agente eta erdi mailako bi ertzain, pilotakadak jaurtiti zituztela aitortu zutelako lehen hiruak eta agindu hori emateagatik beste biak; baina epaimahaiak ez du akusazioa frogatutzat eman, bere

esanetan ezin baita zehaztu pilotakada zeinek jaurti zion Athleticeko zaleari, eta absolbitu egin ditu.

“Zergatik tratatu gaituzte hain gaizki?”

Cabacasen gurasoen abokatuak, Jone Goirizelaiak, adierazi du egia judiziala eta Iñigo zauritutako egunean gertatutakoa ez daudela oso urrun. “Gurasoek gertakariak jakin nahi zituzten eta hori jaso da”, baina azpimarratu du epailetan honetan denak ez direla akusatuen aulkian egon eta ezin dela esan oso pozik daudenik. Manu Cabacasek gaineratu du Urkulluk, Beltran de Heredia eta Jonan Fernandezek azalpenak eman behar dituztela. “Esan zuten epailetari itxaron behar zitzaizola. Orain partida amaitu da: ez dute ezer esateko? Zergatik tratatu gaituzte hain gaizki?”. Helegitea aurkeztuko du familiak.



“Skolaeren aurkako kanpainak muga guztiak gainditu ditu”

MARIA SOLANA, NAFARROAKO HEZKUNTZA KONTSEILARIA

Hezkidetzeta eta sexu heziketa helburu duen Skolae programaren aurka UPN eta PPK daramaten sorigin-ehiza salatu du Solanak. Horri lotuta, ekainetik bizkartzainen beharra du. “Mehatxu konstanteak, onartezinak” eta erasoak jasan ditu: “Hiru aldiz aurkitu dugu gure bulegoa mezu faxistez eta mehatxuz pintatuta”. Huarteko berdintasunaren aldeko horma ere pintaketez josi dute, “genero ideologia-ri ez”, “pedofilia ez” eta “lobby korruptoei, lobby gay eta feministei ez” gisako mezuekin. **2018-11-26**

GAIZKI ERRANKA

Lau indiar eta desinfektatzaile pixka bat



Santi Leoné
@ororostorm

Duela ez hainbertze, Espainiako telebistaz telebista ibili zen, nazionalismo katalanaren oinarri ahulak agerian uzten. Hala iragartzen zuten: “Josep Borrellek bi minutuan desagiten ditu independentismoaren argudioak”. Edo beharbada minutu batean zen: zenbaki horrekin adierazi nahi izaten zen lana erraza zela, eta, eraitsi beharreko argudioak, munta gutikoak.

Nik ezkerrekoa omen den umorezko saio batean ikusi nuen. Metodoa zen harrigarriena: bi topiko eta lau sinplekeria boteaz, frogatutzat ematen zuen Katalunia Espainia izan dela, dela eta izan behar duela. Halere, zer erraten zuen baino interesgarriagoa da zer gorpuzten zuen: herritar unibertsala, zibilizatua, hain zuzen ere katalana izateari uko egin eta espainola izatea erabaki edo onartu duen neurri berean.

Kataluniako historia bezala, AEBetako azaldu du oraindik orain Borrellek, metodo berbera erabiliz: bi topiko eta lau orokorkeria

Nolanahi ere, ematen zituen azalpen haiek guziak aski ez eta Katalunia desinfektatu egin behar zela ere erran zuen gero Kataluniako *problema* konpontzeko asmoa omen zuen ezkerreko gobernu bateko ministro bihurtuko zenak.

AEBetan ez dute desinfektatzailerik behar; izan ere, horixe da -betiere Josep Borrellen arabera- beren historia murriztean egin duten lan bakarra: lau indiar hil. Hiru ere izan zitezkeen: zenbaki horrekin adierazi nahi dugu lan erraza izan zela, eta indiarren biziak munta gutikoak. Kataluniako historia bezala, AEBetako azaldu baitu oraindik orain Borrellek, metodo berbera erabiliz: bi topiko eta lau orokorkeria boteaz. Harrigarriena da atzerrian ez duela etxean ohikoa izaten duen txalo zaparrada jaso. Are gehiago, kazetari frankok Borrellen arinkeria eta ezjakintasuna azpimarratu dituzte. Ez dute Espainia ulertzen. Lau indiar hil, lau politikari katalan kartzelan sartu: unibertsaltasuna ez da lan gozoa. Hemen denek dakite hori. Baita ezkerreko ministro eta kazetariak ere. ■

EZ HANKA EZ BURU!



...EMATEN DU
LIBURUA KRISIAN DAGOELA,
IRAKURLERIK EZ DA APENAS
SARTZEN LIBURUTEGIRA,
IRRATIAK ETA TELEBISTAK
DUDARIK GABE
ESPAZIOA KENDU DIOTE...

EZ OTE DA POSIBLE
KOMUNIKABIDEOK
HORRELA UGALDU
ETA ZABALDUZ GERO
IRAKURGAITZASUN BERRIA
ZABALTZE, HALAKO
ANALFABETISMO
MODERNO...!



SARRI + A D U R

ANALISIA



Futbola, ia beti da futbola...



Jon Torner Zabala

@jtorner

"Ikur bat da Sergio Ramos, ez soilik Real Madrilena edo futbolarena, espainiar kirolarena baizik. Guztion eginbeharra da hura babestea". (Santiago Solari, 2018-11-26). Real Madrilera entrenatzailea da Solari. Ramos, talde horretako kapitaina, kirol prentsa eta telebista saioetan duen protagonismoagatik bezain ezaguna prentsa arrosan agertzeagatik, bi munduek elkar elikatzen dutela erakusten duena...

Football Leaks-en dokumentu batzuek, *Der Spiegel* astekari alemanak eta *Mediaset* agerkari frantziarrak iragan astean zabaldukoak, agerian utzi dituzte jokalariai egindako dopinaren aurkako kontrol batzuetan atzemandako irregulartasunak. 2017ko Txapel-dunen Ligako finalean positibo eman zuten Ramosek. UEFAk kasua artxibatu zuen, Real Madrilena azalpenak ontzat emanda: osasun tratamendu batengatik injektatu zioten dexametasona izeneko kortikoidea sorbaldan eta belaunean.

UEFAk eta AMAk berretsi dute ez da goela "Ramos auzirik", eta ustezko positiboaren ingurukoak di-da desagertu dira hedabideetatik, lehenago ere hainbatetan gertatu den moduan –baita gu-rean ere– futbola zikindu duten beste

zenbait polemikaren kasuan –"sexu eskandalu", zerga iruzur edota dopinarekin lotutako kontuekin–, euren idoloak salbu ikusi dituzten fededun ororen zorionerako. Guztion eginbeharra baita haiek babestea.

Eta denborarekin ahaztuko dira ere bai Argentinan gertatutakoak Libertadores kopako finalaren atarian. River Plate eta Boca Juniors talde historikoen arteko partida leherrarazi zuten harrikadaka River-eko zale batzuek. Sarre-ren kudeaketa deliktiboa, erraietarainoko etsakeria, narkotrafikoa, polizia eta botere politikoa nahasten dituen errealitate ustel baten enegarren atala, futbola –(ia) beti da futbola– aitzakia gisa baliatuta. "Nire seme-alabak negarrarazi egin zenituzten, eta hori ez dago barkatzerik; sar ezazue Kopa ipurtzulo-tik", idatzi du River-eko zale batek sare sozialetan bolo-bolo zabaldu den mezuan.

Negarrez ikusi berri dugu mutiko bat, Murtzian (Espainia), umeen arteko partida batean talde bietako zaleak (gurasoak) mutur-joka erakusten dituen bideoan, gizarte gaixo batek sufritzen duen zentzugabekeriaren enegarren atala. Ia beti da futbola... ■

EKONOMIAREN TALAIAN

Gernikako Estatutua etengabe hausten dute



Juan Mari Arregi

Eusko Alderdi Jeltzaleko buruzagiak hitz goran aritzen dira Espainiako Gobernuarekin negoziazio uneak datozen bakoitzean eta Gernikako Estatutuan adosturiko eskumenen transferentziak aldarrikatzen sutuenak dirudite momentu horietan. Hala ere, hainbeste hamarkada pasa diren arren estatutu horrek bete gabe jarraitzen du hogeitamar gaien inguruan. Eta badirudi haietako zenbait gai eskuratzea luzerako dela, Gizarte Segurantzaren kudeaketaren transferentzia, adibidez, "ez da premiazkoa" bi gobernuentzat, ustezko bere "konplexutasunagatik".

Joan den astean Bilbon bildu zen Transferentzien Komisia Mistoa, zazpi urteren ondoren. Egutegi bat osatzea baizik ez dute lortu eta hori ez da aurreikusten Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoa lantzea ere. Ez omen dauka presarik, "horri uko egiten ez diogun arren", Lakuako bozeramailearen arabera. Nola egingo diote uko, duela berrogei urte adostua eta sinatua baldin badago? Hori lotsa! Eta EAJko presidentek aurreko egunean ozen zioen 30 eskumenak transferitu behar zirela... Baina orain bi gobernuak bat datoz esatean ez dela urgentea. Galde diezaietela pentsionistei.

Egoera lotsagarri eta eskandaluzko honek baditu bere arduradunak, ez soilik Espainiako Gobernuaren partetik. Estatutua ez betetzearen erantzule nagusiak hura adostu eta sinatu zuten gobernuak dira, espainiarra eta Euskal Autonomia Erkidegokoa, eta azken hau sostengatzen duen alderdia ere bai. Batzuk erantzule dira akordaturiko eskumenak ez transferitzeagatik, eta besteak behar adina ez presionatzeagatik duela urte askotatik zintzilik dagoen gai garrantzitsu honen inguruan. Gizarte Segurantzak ez transferitzea, Gernikako Estatutua haustea da. ■



G7 EZ! PLATAFORMA

G7aren gailurraren aurka

BIARRITZ. Datorren urteko abuztuan, Biarritzen egingo dute gailurra Mendebaldeko zazpi potentzia ekonomikoek. Euskal Herriko hainbat eragilek plataforma aurkeztu eta deia egin dute egun horietan mobilizatzeko, “kapitalismoak irudikatzen duen mundua errotik aldatzea beharrezkoa delako” eta “beste mundu bat sortzea posible eta premiazkoa delako”.

Euskarazko itzultzaile automatiko adimenduna

Iñigo Igartua

@igartua19

Adimen artifizialaren bitartez itzulpen automatikoa egiteko tresna aurkeztu dute Elhuyarrek eta Mondragon Linguak: Modela. Euskarazko itzultzaile “one-na” izanik, “kalitatezko” itzulpenak egiten dituela adierazi dute sortzaileek.

Sare neuronalak

Itzulpen automatikoko sistemetan, emaitzen kalitatea mugatzen zuten euskararen morfologia aberatsak eta bestelako ezaugarriak. Aldiz, Sare neuronaletan oinarritutako sistemei esker, oraingoan muga hori gainditu ahal izan dute.

Beste hizkuntzen pare

Zehazki, Sare Neuronalak Itzulpen Automatikoa (NMT, Neural Machine Translation) erabili dute. “Hizkuntza nagusien arteko itzulpen-sistemetan erabiltzen den teknika aurreratu hori euskarazko testuekin ere aplikatzeko modua aurkitu dugu”.

Erabilera praktikoa

Sare neuronaletan oinarritutako itzultzaileek izugarrizko jaria-kortasuna eskaintzen dute, aurrez ezagutzen genituen sistemekin alderatuz. “Lehen aldiz, euskarazko itzultzaile automatiko baten erabilera praktikorako ateak ireki zaizkigu”.

SEXU ERASOAK



14

sexu eraso eta 9 lan jazarpen salatu dira EHU. *Pikara Magazine* aldizkariak eginiko ikerketaren arabera, EHU da Espainiako Estatuko unibertsitate publikoetan eraso gehien erregistratu dituen bigarrena.

%24

Emakume ikasleen %24ak ziurtatzen du unibertsitate eremuan sexu erasoak pairatu izana.



HIESA

Hiesaren eragile den Giza Immuno-eskasiaren Birusari buruzko aurreiritziak bazter uzteko euskarazko hiztegia atera dute. GIBaren eta Hiesaren inguruan estigmak irauten duela jakitun, Bizkaisidak, Eusko Jaurilaritzak eta Euskaltzaindiak bat egin dute aurreiritziak saihesteko kanpainan.



DE MIGUEL

Eusko Jaurilaritzak eta Bizkaiko Aldundiak ere frogatutaz jo dituzte ‘De Miguel’ sarearen irregularitasunak. Arabako lurralde auzitegiko fiskalaren argudioekin bat egin dute erakundeek eta onartu dute sare klientelarra osatu zutela EAJko Arabako buruzagi ohiek.



KLIMA ALDAKETA

Bruselak ikatza, petrolio eta gasaren amaiera finkatu du 2050. urterako, orduko berotegi-efektua sortzen duten gasen igorpena desagerraraztea. Baina horretarako neurri zehatzik ez du proposatu.

«Zerbait berria egin ahal izateko Vendetta amaitzea ezinbestekoa zen»

Pello Reparaz

Bere kabuz hegan hastera doan arranoa

Musika pasioa eta lana du. Vendetta taldeari amaiera eman eta beste hamaika proiektu abiaraztea du helburu. Bitartean, 'Euskalonski'ak ezagutarazten jarraituko du ETB1en eta haurrei giza balioei buruzko gogoeta egitea proposatuko die *Baloreak* disko berriaren abestiekin. Geldiezin.

Testua: Reyes Ilintxeta

Argazkiak: Dani Blanco

Hamar urteren ondoren 'Agur Vendetta' esanen duzue abenduaren 28an Hatorxu jaialdiaren atarian. Zer sentitzen duzu?

Ilusioa eta aldi berean melankolia, pena... tristezia ez nuke esango, azken bira honetan jendearen maitasuna eta berotasuna sakonki ari garelako sentitzen eta gure arteko harremana izugarri ona delako, beti bezala. Bi sentimendu horiek ditut.

Zergatik agur, orduan?

Nire ikuspegitik aztertuta esango nuke gogoa dugula beste gauza batzuk egiteko. Iaz Londresera joan nintzen master bat egitera eta honek gauzak ikusteko modua aldarazi dit. Hamar urte pasa dira Vendetta sortu genuenetik. Ni asko

aldatu naiz eta aldatzeko beharra sentitzen dut. Vendetta bezalako proiektu handi batek dena xurgatzen dizu. Ezin dira neurri horretako bi proiektu aldi berean eraman. Zerbait berria egin ahal izateko, nire ustez, Vendetta amaitzea ezinbestekoa zen.

Goian zaudenean amaitzea da onena?

Hala da. Eta nik uste dut hori polita dela. Vendetta oso-oso ongi kokatuta dago. Kontzertu piloa eman dugu Euskal Herrian eta kanpoan ere bai, baina artistikoki konfort zona horretatik ateratzea garrantzitsua da artistarentzat. Zerotik hastera eta planteatzea zer egin nahi duzun, zerk betetzen zaituen, oso beharrezkoa da. Nekagarria izan daiteke, baina ezinbestekotzat jotzen dut.

Pello Reparaz Escala

Arbizu, 1990

Musikari, konpositore eta ekoizlea. 17 urterekin Vendetta taldea sortu zuen. Taldeari agur esanen diote abenduaren 28an, Iruñerrian. Irakasle ikasketak egin zituen NUPen. Berriozarko musika eskolan irakasle izan da, baita Etxarriko eskola publikoan ere. Haurrentzako *Baloreak* proiektua abiarazten ari da. ETBn *Euskalonski* saioa aurkezten du, munduan zehar bizi diren euskaldunak bisitatuz. Bitartean, Londresen, abestiak egiten ikasteko bi urteko masterra egiten ari da.





Hemendik bi urtera nola ikusten duzu zure burua?

Taula ganean, hori seguru. Orain, Vendetza amaituta eta beste zerbait sortu arte, hilabete batzuk oholatzatik kanpo pasako ditut eta ia-ia jada ari naiz horretarako beharra sentitzen. Ez dut ikusten nire burua bakarlarari. Uste dut ez dudala oraindik oso garbi ni nor naizen, asko aldatzen ari bainaiz. Agian bizi osoa pasako dut horrela... Beste talde batean irudikatzen dut nire burua, beste soinu batzuk, beste instrumentazio bat... baina momentuz, bederen, ni bakarrik ez.

Eta zer moduz Londresen egiten ari zaren masterrarekin?

Izugarrria da. Harrituta nago. Ohartzen ari naiz gauza asko inertziatzat egiten nire abestiak idazterakoan, egituratzekoan edo informazioa ematerakoan. Ez naiz aldatzen ari, inola ere, zer landu, baina bai nola transmititu. Erabateko iraultza izan da masterra nire barruan.

Londresen geldituko zara?

Masterra bukatutakoan Euskal Herrira itzultzeko asmoa dut. Asko bidaiatzen

jarraitzea gustatuko litzaidake, baina sentitzen dut nire lekua hemen dagoela. Gustura bizi naiz Arbizun eta musika ere ikuspuntu honetatik sortzea asko gustatzen zait.

'Baloreak' izeneko haurrentzako proiektua aurkeztu berri duzue. Zer da zehazki?

DeepSoda berriki abian jarri dugun ekoizpen kooperatibaren lehen proiektua da. Paxkal Etxepare soinu teknikaria, Joseba Razquin musika managerra eta hirurok ari gara lanean, eta Joseba eta biok irakasleak garenez, musika eta irakaskuntza lotzen dituen proiektua sortu nahi genuen. Betidanik izugarriko alergia izan diet giza balioei, sentitu dudalako kutsu erlijiosoa zutela eta pentsatu nuen: zergatik ez balio horiek aldarrikatu eta haurren ikuspegitik landu? Itxaropentsu eta gauzak eraldatzeko gogoz egindako ekarpena da.

Zer balio dira horiek?

Haurrekin luze hitz egin eta gero atera direnak dira: jarraitutasuna, maitasuna, erantzukizuna, umiltasuna, ausardia, nortasuna, berdintasuna eta elkartasuna.

Eztabaida piloa egin dugu eta oso sortze prozesu interesgarria izan da. Ardura handia hartu dut eta hitzak kontrastatu nahi izan ditut Eraikiz kolektibo feministarekin, SOS Arrazakeriarekin eta Chrysallis elkartearekin. Letrak berrikusi dituzte, ekarpen baliotsuak egin dituzte. Nire burua feministatzat har dezaket, adibidez, baina gauza askotaz ez naiz ohartzen, asko dudalako deseraikitze. Horregatik, nahiago izan dut eztabaidatxoak izan.

Diskoa Durangon aurkeztu eta gero, zer?

Hezkuntzarako materiala ari gara sortzen orain. Ez dugu disko soil bat izatea nahi eta agian taula ganean ere ikusiko dugu, baina oraingoz ez dugu horretaz hitz egin. Etorkizunean agian, baina oraingoz ez da helburua. Protagonistak haurrak dira eta beste lehentasun batzuk dituzte.

Haurrekin ongi moldatzen zarela begi-bistakoa da.

Maisua naiz eta asko gozatzen dut irakaskuntzan. Haurrak eta txakurrak dira nire pasioak, ez ditut zaku berean sartzen, baina asko disfrutatzen dut biekin.

BIZI BAT ABESTITAN

19 urteko mutil arbizuarrak "Begitara begira esaguzue hizkuntza hau ez dela geurea, herri faltsu bat izan dugula maite, lekuz kanpo gaudela" esaten zien ozenki Nafarroaren euskal nortasuna ukatzen dietenei. Gerora pentsarazi zigun, "Zer ginen ta zer garen. Ez ahaztu gogorrenak ginela" eta kaleak berreskuratzea deitu zigun *Bother the police* kantarekin: "Herri honetan zer ari zara? Bueltako bideak ahaztu ala? Eta molestatzeko, molestatzeko goaz jarraitze- ra eta zure bueltako bidean elkarrekin aurkitzera". Baina bihotza beste modu askotara ere hunkitu digu, Joseba Ezkurdia pilotaria

eta bere lagun minari egindako kantarekin, adibidez: "Hemen gaittuzu betiko. Hemen gaittuzu ezarrietatik eskutara..." eta mai- tasunaz eta borrokaz amets egitera eraman gaitu udarako gau luzeetan: "Ta zure eskutik kilometroak egin. Herriaren begietan os- patzerik ikusi. Gose direnen izenean Batikanoa erortzen ikusi", eta arrano bat bezain aske sentitzeko desioa piztu digu: "Agur urruneko. Agur bihotzeko. Otsoen antzera, aldera, uzkurto gabe, koldar- tu gabe, amildegi hartan pausatu den arranoa hegan hastera doa! Ta nik igo nahi nuke magalean ta zeruan bizi, zeruan hezi geroa".

Eszenatokian ere gozatzen duzula argi dago.

Kristoren esperientzia da. Musika nire- tzat drogarik potenteena da eta ez dut inolako intentziorik desintoxikatze- ko.

Ikusgarria da zenbat jarraitzaile duzun, bereziki nerabeen arten. 14.000 bai- no gehiago Instagrameko kontuan eta 19.000 Vendettakoan, adibidez. Fan fe- nomenoa nola daramazu?

Ongi. Arbizon bizi naiz, gure Euskal He- rria nazio txikiko herri txiki-txiki bat da eta testuinguru horretan fan fe- nomenoa ez da inolaz ere beste toki as- kotan gertatzen den bezalakoa. Gu per- tsonaia publikoak gara, baina oso maila lokalean eta horregatik askoz eraman- garriagoa da, zalantzarik gabe.

Euskalonski telebista saioan zeuk egiten dituzu elkarriketak. Kazetaritza da zure alde berria?

Ez dut inolaz ere nire burua kazetari- tzat hartzen. Telebistan sartu-irtena egin dut eta esperientzia polita bizi- tzen ari naiz. Betidanik asko gustatu

izan zait bidaiatzea, jendea ezagutzea... eta musikaren munduak hori eskaini dit. Orain musika, bidaiak, eta euskara, dena batera hartzeko aukera ematen dit saioak, beste modu batez. Jende in- teresgarria da eta sekulako istorioak dituzte, beraz benetan erraza egiten ari zait. Gainera, lan-talde bikaina dago atzean. Bulegoan lan ikaragarria egi- ten duen jende guztiaz gain, adibidez, programaren zuzendaria den Lander Garro ez nuen orain arte ezagutzen. Sorpresa ikaragarri ona izan da munta horretako proiektu bat hain ondo lide- ratu dezakeen pertsona ezagutzea eta berarekin horrenbeste ikastea.

Oso diplomatikoa izateaz gain, Pello no- lakoa da?

Nire indargunerik eta, aldi berean, ahulgunerik handiena, gauza bera da: musika eta lana. Azkenean musika nire lana da eta nik lanarekiko obsesioa daukat. Horrek xurgatzen dit nire bizi sozialaren parte handi bat, familiarekin egoteko denbora eta loa ere kentzen dit. Uste dut azken bizpahiru urteetan

muturrera eraman dudala eta eskue- tatik joan zaidanaren sentsazioa dau- kat. Egia esan, beti pentsatzen dut he- mendik bi edo hiru hilabetera lasaia igo ibiliko naizela, baina berdin jarraitzen dut hainbat proiektutan murgilduta. Ez dakit ezetz esaten. Musika nire bi- zia da, nire pasioa. Sekula ahaztuko ez ditudan esperientziak bizitzen ari naiz, baina aldi berean estres egoera amai- gabera kondenatzen naute. Ekoizpen estudioan bizi naiz, Arbizon, eta ez nai- zenean bidaiatzen ari han egoten naiz goizetik gauera arte, batez ere sortze lanean murgildurik.

Politikoki eta ideologikoki busti egiten zara zure kantetan. Adierazpen askata- sunerako gero eta traba gehiago dago?

Azken garaian ikusten ari gara hori dena kudeatzea zailagoa dela. Egia da Euskal Herrian beti sufritu izan dugu- la presioa eta zentsura: S.A., Fermin Muguruza, Berri Txarrak... Nik ez di- tut inoiz nire ideiak ezkutatu eta parte hartu izan dut egoki ikusten nituen afera guztietan, Altsasuko en gurasoen





ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

50 urtez elkarrekin

abestiaren sorreran, adibidez, eta ez dut pentsatu jarrera aldatzea. Artistak barrutik ateratzen zaiona egin behar-ko luke eta horrelakoetan parte hartzea ezinbestekoa izan da niretzat. Egia esan ez dut beldurrik sentitzen. Dese-roso sentiaraztea artearen funtzio bat da. Artea eraldatzailea da eta arteak beti modu batera edo bestera islatzen du sortutako testuingurua.

Zure zein hiru abesti azpimarratuko zenuke eta zergatik?

Abesti batzuek esanahi bereziak hartzen dituzte. Adibidez, *Reggaean hegan* jendeak gure agurraren ereserki bilakatu du. Errepikak “agur” dio eta kontzertuetan oso berezia ari da izaten. Kantak beste esanahi bat hartu du eta oso polita eta aberasgarria da. Abestia, berez, sentsazio bati lotuta sortu zen. Hilabete batzuk kanpoan izan eta gero herrira itzuli eta paseoa nentzela arrano bat ikusi nuen egurrezko haga batean. Handik gutxira, San Donato, Beriain aldera joan zen hegan eta irudi hori ikaragarria iruditu zitzaidan. Askatasunaren irudia zen. Egun horretan bertan idatzi nuen.

19 urterekin egin nuen *Begitara begira* abestiak denborarekin beste tamaina bat hartu du. Idatzi nuenean deskribatzen zuen guk Arbizun eta Nafarroa osoan bizi izan dugun sentsazio bat: euskaldunok eduki dugun mespretxatuak izatearen sentipena. Batez ere UPN agintean zegoen garaian. Euskal Herrian izan duen eragina izugarria izan da.

Eta beste kanta bat, azpimarratu beharrekoa, *Udarako gau luzeak* da. Amodio abestia da, nahiko eduki politiko eta soziala du, baina atera zenean oso polemikoa izan zen. Oso “poperoa” zen batzuen ikuspegitik. Egia da sentikortasunaren beste atal txiki bat erakusten zuela, ordura arte Vendettarekin erakutsia ez genuena, eta horregatik zartako asko jaso genuen. Une hura niretzat oso traumatikoa izan zen. Abestiak izugarrizko arrakasta izan arren, ez nuen ulertzen sortu zena. Agian zerbait gaizki egiten ari nintzela pentsatu nuen. Kristoren paranoia izan nuen eta buelta asko eman nion buruari. Zergatik maitasun kantarik ez egin? Urteen poderioz ikusi dut Vendettaren abesti ezagunenetako bat izan dela eta asko ikasi dudala ni neu izaten.



Sortzaileari onartu behar zaio aldatzea, ezta?

Aldaketa ezinbestekoa da eta artearen munduan gehiago. Askotan esan digute konnotazio negatiboarekin aldatzen ari garela eta nik esan izan dut aldaketa beti ona dela. Oso harro nago Vendettak izan dituen aldaketa guztiekin, eta gainera, publikoaren harrerak indartzera egin du beti.

Gero eta abesti gehiago idatzi duzu Vendettan, eta gero eta gehiago abestu duzue euskaraz.

Askok bete naute euskaraz idatzitako

abestiek. Vendettaren kasuan, garbi ikusten dut euskarak ate batzuk ireki dizkigula. Gure izaerarekin lotuago egoteaz gain, uste dut bizitza eta musika era desberdin batean ulertzeko tresna izan daitekeela euskara eta hortik jo nahi dut. Nire hurrengo proiektua euskaraz irudikatzen dut.

Kanpora ateratzerakoan muga izan daiteke?

Ez dakit, ez nago ziur. Berri Txarrak-ek muga guztiak apurtu ditu, baina bidea ez da erraza izan. Gauza asko eman dizkie, baina gogorra ere izan daiteke. ■

Hizkuntza bisexuala

Amak sukaldean duen egutegia begiratu dut. Mungialdeko paisaia lainotsu bat eta azpian aipu bat: “Euskara hizkuntza bisexuala da. Anari”. Ozen irakurri dut. Amak eta biok desberdin interpretatu dugu. Berak uste duelako, euskaraz genero markarik ez dagoela. Nik euskaldun guztiok garelako aldi berean erdaldun. Tira, nire amak arrazoia izango du.

Txikia nintzenean Mekanoren *Mujer contra mujer* kanta mitikoaz gain, beste batek egiten zidan kilika barrenetan: “*Y nos metimos en el coche / mi amigo tu amiga tú y yo / te dije nena dame un beso / tú contestaste que no*”. Gerora etsipenez jakin nuen, kantak ez zuela Ana Torrojaen desioez hitz egiten, baizik eta José María Canok idazten zituela letrak. Nahasketa interesgarria sortzen zuen horrek, sexu aniztasuna lerro artean irakurri behar genuen garai horretan. Lesbianek Kanaria uhartee-tako Rosana abeslaria aldarrikatu dute, nahiz eta “*Cuando una noche de amor desesperados / Caigamos juntos y enredados*” kantatu. Gaztetan inoiz ez zitzaidan okurritu Ken Zazpi mutil batentzat gauero ilargia lapurtzeko prest egon zitekeenik edo Latzeneko abeslaria pertsona transgenero baten erruz bu-rua galtzen ari zenik. Euskara hizkuntza bisexuala (edo Amelia Barquinen esanetan, hizkuntza *queer*) izango da, baina tamalez, oraingoz heteroaraua eta binarismoa errotuta dauzkagu.

Euskaraldia-ren hirugarren egunean ari naiz artikulu hau idazten eta jakin badakit Bilbon euskara disidentzia dela eta gaztelania araua. Txikitan nire neska lagunekin “pelikuletara jolasten” nuen sekretuan, muxukatzeko aitzakia izateko, baina banekien mutilagunak izatea zela bide zuzena. Nerabezaroan



June Fernández

KAZETARIA

@marikazetari

Ez dut inoiz euskaraz ligatu, eztabaidatu, txortan egin, ezta amets egin ere. Euskararekin lotura afektiboa mantendu egin dut, baina Bilbon gaztelaniaz bizitzea da bide eroso. ARGIA-n idazteak eta, aurtan, Bilboko *Euskaraldia*-ren hamaikakoan *Ahobizi* bezala parte hartzeak lagundu dit euskararen errepideaz gozatzen

mutilagunekin jarraitu nuen, hori zen argitutako autobide eroso, bidaia sari ugari ordaintzea suposatu zuen arren. Lesbianismoa urrunetik ikus nezakeen bidea erakargarria zen, baina malkartsua. Feminismoari esker heteroarautik

desbideratu eta nire bidea egin nuen. Elebidun hazi nintzen, baina laster gaztelaniaren hegemonia gailendu zen. Ez dut inoiz euskaraz ligatu, eztabaidatu, txortan egin, ezta amets egin ere. Euskararekin lotura afektiboa mantendu egin dut, baina Bilbon gaztelaniaz bizitzea da bide eroso. ARGIA-n idazteak eta, aurtan, Bilboko *Euskaraldia*-ren hamaikakoan *Ahobizi* bezala parte hartzeak lagundu dit euskararen errepideaz gozatzen.

Maiz erabiltzen da euskaraz, armai-rutik ateratzearen metafora. Ostatu batean neska-lagunarekin erreserba egin eta ez jakin zer arreta jasoko duzun; deserosoa da eta bortitza izan liteke. Bilboko denda batean euskaraz egin eta ez jakin zer arreta jasoko duzun; deserosoa da eta bortitza izan liteke. *Ahobizi* txapa daramatenei begirada konplizeak botatzen dizkiet metroan, luma duten emakumeei bezalaxe. Gaztelaniaz, “¿en-tiendes?” kodea erabiltzen da gay eta lesbianen artean.

Imanol Epelderen artikulu batean irakurri dut 750.000 euskaldun elebidunetatik 200.000 inguruk baino ez dugula euskal literatura, musika edo kazetaritza noizbait kontsumitzen. Emakume bisexual batek emakumezko bikoteak dituenean galdetuko diote ez ote dituen gizonak (ala zakilak) faltan botatzen. Alderantzizkoa ez dut sekula entzun izan. Ba al dakite milioi erdi euskal elebidunek, zer galtzen ari diren? ARGIA. *Berria*. Danele Sarriugarte, Arantxa Urretabizkaia, Uxue Alberdi. Anari. Zea Mays. Maialen Lujanbio. Eta abar. Erdara-arauan guztiz murgilduta nengoenean inork ez zidan galera horri buruz galdetu. Hegemonia bide eroso izan daiteke, baina zein dira ordaindu beharreko bidaia sariak? ■

Singer eta animaliak

Filosofo australiarra da Peter Singer, 72 urtekoa; 1975ean *Animalien askapena* liburua idatzi eta, kritikak ugari bildu ditu hemen gaindi, batzuk zakarrak.

Esperimentazioan eta hazkuntzan abereekin erabiltzen diren torturak jorratzen ditu Singerrek, eta elikagai begetalen abantaila anitzak azpimarrazten. Kulturetan, erlijioetan edo filosofian izan diren jarrerak ere aztertzen ditu, zoliak zein traketsak. Traketsetan Descartes ahaztezina: sentsibilitaterik gabeko makinatzat jotzen zituen animaliak, makina perfektuak, halere, Jainkoak eginak baitira...

Baina iskanbilak liburuaren lehen kapituluak eragin ditu bereziki. Bentham filosofo utilitarista aipatzen da hor, 1789an ohartarazi baitzuen larruaren kolorea ez bada arrazoa jende bat berreroaren esku uzteko, orobat ez dela arrazoirik izango, bere larruko ilea-gatik edo zangoen kopuruagatik, izaki sentsible bat sufriarazteko. "Zein da, beraz, horretarako irizpidea?", galdeztzen du Benthamek. Arrazoitzeko eta mintzatzeko gaitasun falta? Ez, ba: haur bat sortu berria baino zentzudunago eta berritsuago dira zaldi eta txakur helduak. Eta hola ez balitz ere, zer? Gal-



Anuntxi Arana
ANTROPOLOGOA

Sufrimendua kantitatez neurtzen da, eta ez sufritzen duenaren sexu, arraza edo espeziearen arabera

dera ez baita: "Arrazoitzen ahal dira?", baizik eta: "Sufritzen ahal dira?"

Ugaztunen eta hegaztien nerbio sistema gurea bezalakoa da eta, desberdina izanagatik, denek dugu min fisiko berdintsua, dio Singerrek, nahiz haien min psikikoa txikiagoa izan litekeen; edo handiagoa, nola gerta. Sufrimendua kantitatez neurtzen da, eta ez sufritzen

duenaren sexu, arraza edo espeziearen arabera; eta izaki sentsible guztiek ez sufritzeko interesa baitute, moralki justifika-ezina da animalia baten oinazea jende baten oinaze berdina baino gutxiagotzat hartzea. Mina min, guretzat eta haientzat.

Benthamen argudioaren ildoan, Singerrek uste du bizitzeko interes gutxiago duela garuna oso hondatua duen jende batek zein eta animalia osasuntsu batek. Antihumanismo higuigarria! heia gora egiten dute espezieak: "Trisomikoek ximino handiek baino bizitzeko eskubide gutxiago dute!". Alta, alde-rantzizkoa da Singerren arrazoibidea: adimen urriko jendeak begirunez tratatzen baditugu, zergatik ez animaliak? Preseski, hauen sufrimendua gutxies-teko zergatia baldin bada ezin dutela hitz egin eta gogoetatu, horrek berak justifika lezake adimen urriko jendeak txarto tratatzea.

Dena den, gaineratzen dute txitxi-zaleek, zer latza mundu beganoa, behi-bildots-txerririk gabe! Latza bainoago urruna, abere hiltegi-tako ankerkeria ez dela gelditzen ikusita. Klima-eszeptikoek CO2 isurketa murrizteko neurriei erantzungo baliete bezala: "Kontuz gero, e!, glaziazioa etorriko zaigu!". ■



Katixa Agirre
AMEK EZ DUTE



Xabier Etxeberria
BERRIRI ITZULIKO BALITZ



Iban Zaldia
SEKULA KONTATU BEHAR EZ NIZKIZUN GAUZAK

*Letraz letra,
liburuz liburu 2018*

www.elkarargitaletxea.eus

elkar

Erabakitzeko eskubidea: abertzaleok ez ote denbora galtzen ari?



Kimetz Arana
BARATZEZAINA

Noizean behin irteten diren gaien artean, hau da Bilboren periferian azken bi hamarkadatan abertzale munduaren inguruan ibili garen adiskideen artean dugun hizketa gaitako bat. Hasi gintezke nazioartean dauden aukerez, Kataluniaz edo guztiz agerikoa den Estatua-ren krisi orokorrak, gure begiradak ordea ez dira hain urrutira iristen. Kaleko harremanak, laneko elkarriketak, familiako zailtasun eta ilusioak dira gure oinarri. Bilborako metroko joan etorriak gure soziologia laborategia.

Erabakitzeko eskubidearen aldeko dinamikak emaitzak eman baditu ere, bere mugak baditu. Jendartearen gehiengo zabalak erabakitzeko eskubidearen alde kokatzen du bere burua orain, baina, salbuespenak salbuespen, mugimendua abertzaletasunetik haratago zabaltzeko zailtasunetan ikusten dugu. Bere ekimenetan ez dira sumatzen feministen edo pentsionisten martxetako freskotasan, ilusio, naturaltasun eta gogoia.

Estatus berriaren gainean EAJ-PNV/EH Bildu akordioak ere ez du ilusio handirik sortu gure artean. Emango duenaren esperantza handirik gabe eta PNVren ziabogaren zain, herritarren interese gaitatik urrun nabaritzen dugu akordioa.

Estatuaren itxikeriaz gainera Katalunian ikusitakoak ikusita, zail zaigu begitantzea erreprezio eta kartzela urte luzerik gabeko erabakitzeko prozesurik eman daitekeenik gurean.

Bitartean abiadura bizian desegituratzen ari da gure herria. Egitura subirano propiorik gabe, globalizazio, kontsumo zein bizi eredu berrien ondorioz, hizkuntza erabilera, kultur erreferentziak, mugaz gaineko harremanak, gure ekonomia propioa... sortzeko zailtasunak ditugu. Gero eta gehiago azalaraziz herri moduan bizirauteko ezintasuna.

Hortik galdera: ez ari ote garen denbora galtzen erabakitzeko eskubidearen bueltan herri gisa deuseztatzen ari garen bitartean?

Gustura mintzatzen gara gai horietaz gu baino zaharragoekin, ohartuz zein zaila zaigun onartzea azken borroka faseak zelako nekea ekarri digun denoi. Jabetuz menpean gaituzten estatuekin erabakitzeko eskubidea eskuratzea kasik ezinezkoa dela edo Txibertaren logika gaindituz zenbat kostatzen den PNVri lotua ez den beste biderik irudikatzea. Guk, ordea, aro berrian sakondu daitezkeen aukera berriak ikusten ditugu. Munizipalismo eredu propioak sortuz, tokiko ekonomiaren garapenetik edo haurren heziketatik. Gure herrian sortu diren aldarrikapen sozialen (feminismoa, pentsionistak) proposamenen gauzatzetik, aldarrikapen berrien sortzetik, ildo hauen estatuekiko konfrontaziotik eta horien inguruko indar metaketa berrietatik.

Pentsamendu eta ekinbide berriak garai berri-rako: bizibide, iruditeria eta dinamika. ■

Publizitatea, iragarle



Leire Narbaiza
Arizmendi
IRAKASLEA
@txargain

Sekula gauzatu ez dudana proiektu bat dut aspaldian buruan: arratsaldeko telebista saioen etenetan ematen dituzten iragarkiak grabatu, eta ostean iruzkinak egin. Ziur naiz irudi terrible bat aterako litzaidakeela. Izan ere, publizitateek urteko sasoiak adierazi ez ezik, modan eta bogan dagoena ere markatzen dute.

Proiektua egin bitartean, aspaldion ikusitakoekin konformatu behar. Poker, erruleta eta postura etxean iragarkiak nagusi dira, diru erraz baten promesa egin, era ludiko eta errazean. Jokoaren plazera saldu, desplazera erakutsi barik. Jokatu ostean, badirudi etxea zaindu behar dela. Zorriak Lehen Hezkuntzako gela

batean lez ugaritu dira segurtasun enpresen spotak. Alarma sortu, alarmaz arma gaitzen, etxean gotortu, segurtasunaren izenean.

Baina deigarrienak zaizkit medikuntza-aseguren iragarkiak. Desagertuta zeuden ia, eta orain tsunamiaren olatua dirudite. Medikuek telefonoz artatuko gaituela dioskute gure asti ezaren arazoa konpontzeko! Kalitatea!

Iragarkiek etorkizuna iragartzen ei dute. Beldurra zabaldu, lapurretak normaldu, eta osasungintza pribatua izango dela anuntziatzen digute. Bihar-etzi lapur eta tratatu ezineko gaixoak baino ez da izango gurean. Etorkizun iluna. ■

Je suis Trambus

Azaro hastapenean gertatu zen Trambusaren aurkezpen ekitaldia.

Trambusa, azal dezadan, Baiona-Miarritze-Angelu hirigunean gaindi ibiliko den autobus sofistikatua da, garraio ohiturak irauli behar dituen, errazagoa bihurtuko diguna edonora autobusez joatea, autoz baino. Kostu ikaragarrikoa da, bistan dena, eta bi urte dira jada bideen moldatzeko obrak abiatuak dituztela. Ibilgailua bera Irizar enpresak egin da, ederra, elegantea, distiratsua, erakargarria.

Je suis Trambus. Hori zeraman saihe-tsean tatuatua. Beribilaren ingurua eginik, bestaldean ere berdintsu. Barnera sartu eta banatu zitzaizkigun eskuorriak oro erdara garbi eta dotorean ziren, kanpoko aurkezpen afixa erraldoiak gisa berean. Haurrei kartulinazko maketatxoak banatu zizkieten, frantses hutsean. Izkribuetatik bakar batek ez zeraman euskaraz hitzik. Hitz bakarra ere ez. Nehon ez. Eta afera ez zen horretan gelditu, hautetsiak eta kargudunak mintzatu zirenean berdin segitu baitzuen kontuak. *Je suis Trambus. Atout maître des mobilités du Pays Basque.*

Trambusaren proiektua Euskal Elkargoak garatzen du. Elkargoa sortu zen 2017an. Hizkuntz politika eta euskararen inguruko artikulua Elkargoaren estatutuetan, 2018ko uda hastapenean bozkatu ziren. Pozik ginen. Eta sei hila-bete berantago hau errun digute. Nolz gerta liteke Trambusarena? Asmo berri bat, etorkizuneko, hainbat zerbitzuren lana dena eta holako aukera galtzea euskara ikusgarri egiteko? Itxurakeritako baizik ez balitz ere, ez parada baliatu izana euskara sartzeko hor?

Galdegin ondoan, lekuan berean erran zen "geroago" eginen dela. "Prototipoa" dela. Beste nonbait batek justifikatu du komunikazio kanpaina tarrapatzen egin zela, ez zela denbora-



Bea Salaberri

IRAKASLEA
@beatxo



Antton Olariaga

rik izan dena ontsa egiteko. Omen, ez da Elkargoaren kontua soilik. Dena den hautetsiak ez dira denak ados elebitasunarekin. Ez zela sosik aski. Bati bururatu zaio ez zela jenderik libre itzulpena egiteko.

Aski dut konda diezaguten ez dela sosik, ez dela denborarik gauzak egiteko azken urte osoa pasa dutenean kanpaina diseinatzeko, ez dela langilerik aski hizkuntza zerbitzuetan itzulpenen egiteko aldi berean jendea kontratatzen denean erregulariki lan-deialdien ikusteko tarterik nehorik ukan gabe. Akitua naiz goaitatzeaz, beste urte bat, alde litzatekeen beste hautetsi bat, euskaldunon gutxieneko errespetua lukeen komunikazioa ez geratzeaz. Lepotik gora ase naiz gutaz trufa daitezen. Eta sustut ahalke naiz. Aitortzen dut. Ahalke eta damu Elkargoa, hizkuntz politika publikoa eta holakoetan sines-tu izanaz. Pertsonalki ez badut militatu egituraren alde, proiektua gauza zedilako heina egin dut. Erran nahi baitu, esperantzak hazi, diskurtsoak garatzen utzi eta isildu. Geroago Elkargoak hizkuntz politika egokiago bat, osoago bat, zerbait hots, gara zezakeela sinetsi nuen, edo behintzat itxaropen zenbait ukan nuen.

Artikulu hau idatzi eta publikatzeko artean, *Euskaraldi* osoa iraganen da. Tarte horretan, ez da dudarik, hautetsi eta kargudun berek argazkitan agertzeko denbora atzemanen dutela, txapa papoan, beren buruak euskararen militante gisa aurkeztuz. Ez da dudarik etekina aterako diotela A-tik Z-ra herritarrek diseinatu eta gauzatuari. Kari honetara mugituko dira bai, segur, beste guzia zuri lezakeelakoan. Ez da azitia izan behar hori asmatzeko. Hori baita betikoa. Denborak aldatu omen dira, baina gutxieneko koherentzia garaietara oraindik ez dira heldu, hitzemanabetzetik urrun. ■

Bertako ekoizleekin konpromisoa

Hemengoak gara
eta bertako produktuen
kontsumoa sustatzen
dugu

 **EROSKI**
zurekin



Hemengoa
izatea ona da



www.eroski.es

ARGIAk 100 urte

Denon ondarea, denon esku

Ehun urte beteko ditu ARGIAk 2019an. Urte guztiotan kulturgile, idazle eta kazetari askoren lokarri izan da euskarazko kazeta dekanoa. Hedabide baten mendeurrena ez ezik, euskal prentsaren bilakaera guztia ospatu eta aitortzeko urtea da beraz. ARGIAk ibilbide horretan sorturiko ondarea herritarren esku jarriko du: bere zenbaki guztiak eta argazki artxibo historikoa digitalizatzeko proiektua abian da.



Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

ARGAZKIAK: DANI BLANCO / ARGIA ARTXIBOA



Azaroaren 14an egin zen mendeurrenako egitasmoen aurkezpena Donostian. Bertan izan ziren ARGIAko kideak eta Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendari Estibalitz Alkorta.



ARGIAk publizitateko bost bezerotik lau galdu zituen, zor handiak zituen eta kazetari askok gaztelania lehenesten zuten hedabide berrietara jo zuten. Eta hala ere bizirik zegoen. 70eko hamarkada amaierako eszena horrek berdin balioko luke ehun urteko ibilbidea deskribatzeko, oroz gainetik biziraupen historia bat baita honakoa. 70eko hamarkada amaierako ataka horretatik ateratzeko kooperatiba sortu zuten Joxe Mari Ostolaza eta Joxemi Zumalaberen ekimenez, eta hala, beste behin, oinarri izan duen lastairari esker lurreratu ahal izan zen astekaria: militantzia eta jendearen babesa.

Bizirik dago ARGIA, eta hori soilik bada mendeurrena ospatzeko arrazoa; ekimenez beteriko egitaraua antolatzen ari dira etxe honetan. Baina badaude zio gehiago kandlei putz egiteko.

Euskal kazetaritza modernoa garatzeko funtzio garrantzitsua izan du kazetak, batez ere gerraurreko Donostiako *Argia*-ren astekari orokorreko izaera bereganatu eta 1963an gai politiko eta sozialak jorratzen hasi zenetik –“ezer ez zegoen garaian

idazle eta kazetari berriak sortu zituen” zioen Agustin Ezeiza orduko arduradunak–, eta bide urratzaile izan da zentzu askotan: berdin frankismoan ikastolak eta abeslariak bultzatzen, nola *Euskaldunon Egunkaria* sortzeko baliabideak jartzen edo internetarako saltoa ematen.

“Ehun urte bete ditugu, azken 30 urteak Ametzagaiña taldeko enpresen sostenguari esker –azaldu genuen

» Ekimenez beteriko egitaraua ari dira prestatzen etxe honetan 2019rako. Bizirik dago ARGIA, eta hori soilik bada mendeurrena ospatzeko arrazoa. Baina badaude zio gehiago kandlei putz egiteko

ARGIAko kideok Donostian, mendeurrenaren aurkezpen ekitaldian–. Baina beste ehun bete nahi ditugu, eta horretarako *Argia jendea*-ren babesa eta erakunde publikoen konpromisoa behar dugu”. Aurkezpenean izan zen Estibalitz Alkorta Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendaria. Bere esanetan euskarazko komunikabideei daukaten balio estrategikoa onartu behar zaie, eta zentzu horretan, ARGIArekin “zorretan” daudela adierazi zuen.

Jaurlaritzako Kultura sailarekin elkarlana abiatu du hedabide honek, mendeurrena kari. Horri esker aspaldiko nahi edo asmo bati ekin ahal izango dio: zenbaki guztiak eta argazki artxibo historikoa digitalizatzea. Ehun urteko ondarea herritarren esku jarriko du ARGIAk.

Digitalizatze proiektua: zer, nola eta zertarako

ESKU artean duzun honekin 2.624 zenbaki kaleratu ditu ARGIAk mende osoan zehar. Ez jarraian jakina, gerraosteko errepresioaren ondorioz etenaldi lu-

zea jasan behar izan zuen 1936tik 1954ra, eta urte hartatik 1963ra ere gorabehera asko izan zituen. Hortik aurrera, 60ko eta 70eko hamarkadetan zentsura itogarria zen arren –unibertsitate independentea aldarrikatzeagatik edo ikurrina azalean jartzeagatik isunak jaso zituen, Mikel Atxaga zuzendari zela–, eta 80ko hamarkadan sarritan diru-laguntza publikoetatik baztertua izan arren, astero-astero iritsi da etxeetara.

Azken hamabi urteetako edukiak Argia.eus webgunean kontsultatu daitezke modu askean, eta Donostiako Argia-ren zenbakiak –1921an sortu zenetik 1936 urtean desagertu zen artekoak– ere interneten daude pdf formatuan, besteak beste Susaren Armiarma atarian. Gainerako guztia, baina, liburutegietako hemeroteke edo funts erreserbatuetan *giltzapetuta* dago, liburu ki enkoaderna-

tuetan edo bilduma partikularretan egotera kondenatua.

Bidaia luze horretan sorturiko 80.000 orrialdeko kapitalaz ari gara, euskara hutsez eta euskaratik egindako informazioa eskaintzen duena, garaian garaikoa. Ondare hori guztia digitalizatu eta denon esku jartzea da helburua, irakurleak oztoporik gabe eta dohainik sarbidea izan dezala artikulua eta erreportajeetara, testuan bilaketa zehatzak egin ahal izatea, eta bereziki,

edukia zabaltu eta partekatu dezala ahalik eta gehien. ARGIAk defendatzen duen *Creative Commons* filosofia librezalearekin bat dator ideia hori. Gure hizkuntzak *ahobiziak* behar dituen bezala, euskarazko ekoizpenak ez al ditu irakurle *biziak* behar?

Digitalizatzea OCR sistema bidez egingo da. Karaktereak optikoki

ezagutzen dituen prozesua da: idatzitako orrialde bati eskanerra pasa eta irudi soil horretako testua editagarri bihurtzen du. Lehenago ere ARGIAren zenbakiak digitalizatzeko lanak egin ziren, baina emaitza eskasa izan zen. Azken urteetan ordea, OCR teknologia asko garatu da eta orain posible izango da modu azkarrean tipografia irregularra eta gris gama ugari dituzten orrialde zaharren irudietatik kalitate hobeko testua eskuratzeko. Testu hori Argia.eus webgunean integratzea litzateke hurrengo erronka, gaur egungo edukiak dauden bezala.



ARGIAren aldeko pankarta 70eko hamarkada amaierako mobilizazio batean, Donostian. Goian, mendeurrenerako erabiliko den logoa.





Argazki artxiboa: gure historiaren 40.000 ispilu

Mendeurrenak akuilaturik bere argazki artxibo historikoa digitalizatu eta plazaratzeko asmoa ere badu ARGIAk. Gure historia hurbila islatzen duten milaka irudi dira, hedabide honek egoitzaz aldatu duen bakoitzean berarekin eraman duen altxorra.

Batez ere 70eko eta 80ko hamarkadetako irudiak biltzen ditu argazki artxiboak, eta orduko gertaera sozial eta politikoen material grafiko esanguratsua osatzen dute –2015ean komisario izan ginen *Trantsizioak* erakusketan ikus zitekeen bezala–. Euskalgintzari dagozkionak, esaterako, oso balioetsuak dira haien gaiagatik eta agian bakarrak direlako; 80ko hamarkadan ARGIA zen kazeta bakarretakoa hala-koak jorratzen.

Argazkiak digitalizatzen hasi aurretik baina, katalogatzeari ekin zaio. Materiala karpeta eta gutun-azaletan dago gordeta eta bi funtsek osatzen dute. Alde batetik pertsonen izen-abizenekin sailkatutako zatia dago –elkarrizketetan ateratakoak batez ere–; euskal kulturen edo politikan ifrentzua utzi duten 4.000 pertsonaia-aren argazkiak dira. Beste funtsa gaiaren arabera dago sailkatua eta denetarik argazkiak aurki daitezke, nola ikastolen lehenengo jaialdietakoak ala langileen itxialdietakoak edo poliziak erreprimitutako manifestazioetan ateratakoak.

1980ko hamarkada hasierako ARGIAren lantaldea Donostiako Egian, Karmengo Ama kaleko egoitzan. Egungo teknologia digitalik ez zegoen erredakzioko nahiz administrazio lanetan.

» 80.000 orrialdeko kapitalaz ari gara, euskara hutsez eta euskaratik egindako informazioa eskaintzen duena, garaian garaikoa. Ondare hori guztia digitalizatu eta denon esku jartzea da helburua

» Irakurleak oztoporik gabe edukiak ahalik eta gehien zabaltu eta partekatzeak, bat egiten du ARGIAk defendatzen duen *Creative Commons* filosofia librezalearekin. Euskarazko ekoizpenak ez al ditu irakurle biziak merezi?



TALLERES
MITXELENA
S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Eziago Poligonoa · Zikuñaga Auzoa
20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 · F 943 55 28 16
info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

INAKIBEREZIARTUA

ENBALAJEAK
BILTEGIRATZEA ETA LOGISTIKA
ZERRA ETA ERAIKUNTZA



25 urte baino gehiago paketatze
industrialaren sektorean

Jauregi auzoa, 75
Hernani (Gipuzkoa)
☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com
mjm@inakibereziartua.com



Mendeurrenaren aurkezpen ekitaldian azaldu bezala, “zenbat argazki dauzkagun ere oraindik ez dakigu”. Oraingoz 15.600 argazki katalogatu dira, baina artxiboaren tamaina ikusita 40.000 argazki izan daitezke. Horieta-ko asko jatorri ezezagunekoak badi-
ra ere, eskura dauden datuekin argaz-
kiaren testuingurua, urtea eta egiletza
zehaztea da hasierako lan honen helbu-
rueko bat. Ondoren, behin argazkiak
digitalizatuta eta berrerabilgarritasuna
bermatuta, ARGIAren webgunean pa-
ratuko lirateke.

2019 urtea, ospakizun urtea

Ehun urteak ospatzeko, datorren urtean mahai-inguruak eta bestelako kultur ekitaldiak antolatuko ditu ARGIAk hiler-
o eta lurraldez lurralde. Horrez gain,
urteroko zita nagusiak ere mendeurre-
nari begira egingo dira, esaterako Argia
Sariak. Euskarazko komunikazioaren
arloan erreferentzia nagusi bilakatu di-
ren sarien 30. edizioa izango da dato-
rrena, eta hasieran bezala sektorearen
elkargune izaten segituko du, baina aur-
tengoan ARGIA ibilitako pertsona eta
eragileek protagonismo handia izango
dute.

Urtea indartsu hasiko du ARGIAk,
bere irakurleei opari bat eginez: 2019ko
lehen zenbakia berezia izango da ma-

*70eko hamarkadako mugimendu feministaren,
langile borrokaren eta ikastolen aldeko
mobilizazioen irudiak. ARGIAren artxibo
historikoak 40.000 argazki inguru eta 4.000
pertsonaien erretratoak biltzen ditu.*

miz, itxuraz eta baita luzeraz ere. Men-
deurrenari keinu eginez 100 orrialde
izango dituen astekaria argitaratuko
du, elkarrizketa eta erreportaje zabalez
osatua, eta atal berezia ere izango du,
kazeta dekanok euskal kazetaritzaren
historian izan duen tokia kontatuz.

Bestalde, datorren urteko zenbaki
guztietan mendeurrenari loturiko atal
finkoa joango da orriotan, Miren Osa
kazetariak idatzia, hedabide honen in-
guruko kuriositateak, efemerideak eta
intrahistoria ezagutzeko asteroko ontza
izango da. Eta horrez gain, zenbaki ba-
koitzarekin, astekariaren azal historiko
baten faksimilea etorriko zaio eskuetara

» Zenbaki bakoitzarekin azal
historiko baten faksimilea
jasoko du ARGIAko kideak
2019an, Koldo Izagirreren
testu batez jantzia

ARGIAko kideari, Koldo Izagirre idazlea-
ren testu argigarri batez jantzia.

XX. mendean jaio zen, baina etorki-
zuneko kazetaritza egiten segitu nahi
du, beste mota batekoa, eraldatzailea.
Kazetaritza eredu hori garatzeko azken
hamarkadetan mugarri izan diren mo-
mentuak oinarri hartuta, saiakera libu-
rue argitaratuko du ARGIAk udazkenean.

Eraldatzailea, eta independentea. Ez
neskametzarik ez morrontzarik onar-
tzen duen komunikazio proiektua da
hau, eta horretarako giltzarria komuni-
tatea du. Gerraurreko *Argia*-k saltzaile
gaztetxo “pixkorrak” bidaltzen zituen
baserri inguruetara astekaria banatze-
ra; 1963an hiritarturik berpiztu zute-
nean ere herriz herri ibiltzen ziren, ipar
zein hego, astekariak sari bidez ordain-
dutako komisionistak. Eta gaur, kide egi-
teko sistema berritzailea dauka mar-
txan ARGIAk: *Eman ahal duzuna, eta
jaso nahi duzuna* da bere deia, jendeak
proiektua ekonomikoki babes dezan.

Jendea da gorputza eta hizkuntza
bihotza. 1919ko *Zeruko Argia* “Aldiz-
kingi Edergarriidun” erlijioso hartatik
oraingo komunikabide eraldatzaile eta
independentera, ehun urteko tartea
egoteaz gain, hezur eta haragiz ere alde
ikaragarria dagoela bistakoa da. Baina
haien arteko zilborresteak odol bera da-
rama: euskara. ■

GAZTEZULO

H A R P I D E T Z A

EGIN ZAITEZ **GAZTEZULOKIDE**
ETA AUKERATU DISKOA!



**OPARITU HITZEN INDARRA
ETA AKORDEEN ZIRRARA!**

Azkar ibili! **abenduaren 10etik**
urtarrilaren 6ra bitarte
duzu aukera mauka hau
probesteko eta!



gaztezulo.eus



harpidetza@gaztezulo.eus
gaztezulo.eus/harpidetu

943 457 250 / 640 122 382



Euskaraldia

Ikusgaitasuna, konplizitatea eta konpromisoa

Astekari hau eskutan jasotzerako bukatu da hamaika egunez euskaraz aritzeko ariketa. 220.000 herritarrek hartu dute parte. %73k ahobizi rola aukeratu du eta %27k belarriprest. 16 eta 35 urte artekoak %36 izan dira. Gizon baino emakume gehiagok eman du izena, %62 izan dira. 405 herritan antolatu dira batzordeak eta 200 enpresa eta entitate inguruk bultzatu dute langileen artean izen-ematea.

Orri hauetan Euskaraldi betean egindako hiru elkarrizketa jaso ditugu. Asier Lafuente Arabako lautadako Euskaraldiaren koordinatzailea izan da; Kattalin Minerrek hirugarren ekinaldia du, aurrez Egiako eta Piratetako ekimenetan parte hartu baitzuen; eta Alberto Irazu ahobizia Egian Euskaraz Bizi Nahi Dugulako ekimen aitzindariaren bultzatzaileetakoa izan zen.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta



ASIER LAFUENTE:

“Kritikagarria ahobizi kokatu eta belarriprest jokatzeari da”

Asier Lafuente Agurainen egin zuten “72 ordu euskaraz” ekimeneko bultzatzaileetako bat izan zen. Euskaraldian Arabako lautadako koordinatzailea izan da eta ahobizi moduan hartu du parte.

**Zergatik erabaki duzu Euskaraldian parte hartzea?**

Modu kolektiboan antolatutako ekimena da eta ohiturak aldatzeko aukera ematen digu. Euskaraz bizi nahi dugunok parte hartu behar dugula iruditzen zait, eta euskaraz bizitzeko konbentzimendua baldin badugu, ahobizi rolean, hau da, gizarteko arau sozialaren urratzaile lanetan. Ariketa soziala izanda, errazagoa egingo zait urraketa eta baliatuko dut ahobiziaren bi arauak betetzeko: euskaraz ulertzen duten guztiekin beti euskaraz egitea; eta lehenengo hitza beti euskaraz izatea, eta ulertzen duten bitartean euskaraz jarraitzea.

Ikusgaitasuna eta babesa, parte-hartzaile askok aipatu dituzten kontzeptuak dira.

Gu Aguraingo “superahobizitik” gatzoz. Lutxo Egiaren erara egin genuen orduan. Txapa erabili ala ez hausnar-

tu genuen eta erabaki genuen txaparik onena lehenengo hitza euskaraz egitea zela. Orain, hamabigarren egunean txapa kenduko dugu eta nola identifikatuko gara? Gure jarrerekin identifikatuko gara, argi dago. Hala ere, ikusten dugu jendeari ariketa askoz egingarriagoa egiten zaiola txaparekin. Ni gustura nabil txaparekin: babesa ematen dit, gogorazten dit zertan ari garen eta besteak identifikatzen laguntzen dit.

1.500 herritarrek eman dute izena Arabako lautadan. Jende asko. Aguraingo aurreko ekimeneko zifrak eta oraingoak ere alderatu dituzue eta orain dezentez gehiago. Kopurua handiak alde onak eta txarrak al dauzka? Herritarrek ba ote daiteke zertarako eman duten izena?

Kezka badugu. Ahobizi rola bi arauak bete behar dira eta badakigu zein zailtasun daukan, inguru honetan egoera soziolinguistikoa zailagoa ipintzen digu, baita belarriprest aktiboari ere.

Ahalegin handia egin dugu jendea tailerretara erakartzeko, 30 tailer antolatu ditugu eta ia 350 lagun pasa dira. Saiatu gara aurreiritzia ahultzen: euskaraz hitz egiten badakit eta orduan ahobizi naiz. Ez da hain sinplea. Bi konpromiso bete behar dira, eta hori ulertzen dutenean kokatzen dira belarriprest bezala. Ahalegin handia egin dugu, formazioaren bidez, bakoitza bere egoeraren edo mailaren arabera rol batean edo bestean kokatzeko, konbentzimendu osoarekin ahobizi izateko. Internetez seguru ahobizi rola aukeratu dutela batzuek eta gero belarriprest moduan jokatu dute. Denborarekin joango gara fintzen, lehenengoan normala da. Euskaraldia hasi baino lehen batzuk etorri ziren konturatu zirelako zer den ahobizi izatea eta rola aldatzea nahi zuten. Seinale ona da, lehenengo irakurketa sinpletik sakontzen ari dira. Batzuk hamaika egun hauean konturatuko dira. Hurrengo Euskaraldirako hobeto kokatuta daude.

Ahobizi izan daitezkeen kargu politikoei ere belarriprest aukeratu dezakete?

Tailerrak ematen aritu naizenean eta kalean mahaiak ipini ditugunean nik herritarrak ez nituen epaitzen rol bat edo beste aukeratzeko zutenean, ezta herritarrentzat erreferentzia izan zitekeenak belarriprest aukeratuta ere. Euskaraldiaren oinarria norbanakoak dira eta oso egoera desberdinak, esperientzia

desberdinak, dauzkate euskararekin edo gogo eta ohitura desberdinak.

Politikariei, kargudunak, eredugarriak izan behar dute eta gehiago eska diezaiekegu, baina herritarrak norbanako gisa epaitu ez ditudan bezala kasu honetan berdin egingo nuke kargudunekin. Hurrengo urtean desberdina izango da. Entitateen urtea izango da eta bai entitateek eta baita karguek ere busti beharko dute.

Ez al da atzerapausoa? Batzuen kasuan rol bat edo beste aukeratzeak hizkuntza ohiturak aldatzen ahaleginik ez egitea esan nahi du.

Euskaldun aktiboaren rola betetzen duen herritarrak belarriprest hartzea epai genezake, ahobizi beharko luke, urratzaile, baina bakoitzak baloratu behar du bere egoera. Arazo bat izan zitekeen masiboki jendea belarriprest kokatzea, baina ez da hala gertatu. Gehien- goa, gehiengo gehiegi esango nuke nik, ahobizi kokatu da. Lautadan bestela gertatu da, baina esan dizut tailerren bidez-eta asko landu dugula gaia: %60 ahobizi da eta %40 belarriprest. Portzentaje horrekin pozik gaude.

Kritikagarria ahobizi kokatu eta gero belarriprest jokatzeari da. Oso koherente izan behar da norbere buruarekin.

KATTALIN MINER:

“Harritu nau konturatzeak zenbat behar zuen jendeak zilegitasuna”

Ekintzaile feministak Donostiako Egia auzoko “Egian Euskaraz Bizi Nahi Dugulako” ekimenaren hartu zuen parte 2016an. Donostiako jaietan Piratex hizkuntza ohiturak aldatzeko egindako ariketan ere parte hartua da. Euskaraldian ahobizi txaparekin ibili da.

Zergatik hartu duzu parte Euskaraldian eta zergatik zara ahobizi?

Onartu behar dut hasieran eszeptiko samarra izan nintzela Euskaraldiaren proposamenarekin, ez proposamena bera ona ez zaidalako iruditzen, baizik



eta uste nuelako itxurakerian eror zitekeela edo betikook hartuko genuela parte. Hala ere, ez neukan dudarik parte hartuko nuela. Aurrez Egia auzoko eta Donostiako jaietako esperientzia oso onak neuzkan. Oraingoan ez nuen espero halako erantzuna, eta are konbentzi-tuago hartu nuen ahobizi txapa.

Zergatik ahobizi? Euskal hiztuna naitzelako. Nahiz eta saiatu diren rolen arteko desberdintasuna nabarmentzen uste dut ahobizik inplizituki daramala belarriprest, eta aritzeko askatasuna da gehien behar duguna.

Egiako eta Donostiako Piratetako ekimenean parte hartuta iritsi zara Euskaraldira.

Txapak konplizitatea sortzen du eta poztasun handia izan da kalean barna konplizitateak bilatzea. Hala ere, oinarrian konpromisoa dago eta txapa batek ez ditu ematen halakorik. Horretan banekun praktika eta banekien zein zaila den eustea. Batez ere eustea. Lehenengo hitza euskaraz egitea txipa jartzea da, eta harrigarria da konturatzea zenbateraino egiten, aurreiritziengatik ere bai. Baina eustea errebelidia puntu bat eskatzen du eta oraindik heziketa txartzat hartuta dagoen ariketa da, ogia erosten ari bazara ere.

Aitortu duzu zalantza handiak zenituela.

Gauzak magnifikatzen direnean eta halako babes instituzional, nazional eta politikoak dituztenean festa bilakatzen dira askotan. Zalantza neukan ez ote zitzaion norbanakoari transmitituko eta ez ote zen itxurakerian geldituko,

saiakera eta konpromisoa zenbaterainokoa izango zen. Onerako, jendearen konpromiso mailak harritu nau, eta batez ere, konturatzeak zenbat behar zuen jendeak zilegitasuna. Euskaraldiak jendeari zilegitasuna edo aitzakia eman dio berez egingo lukeena era naturalean, intuizioz edo politikaz, egiteko. Txaparekin denok dakigu jolas hori dugula hamaika egunetan eta txaparik gabe lotsagabe sentituko zenak edo heziketa txarrekoa zela usteko zuenak, txapa soinean, zilegitasuna sentitu du aurrera egiteko. Iritzia aldatu dut dezente. Funtzionatu du proposamenak.

Egun hauetako bizipenen bat baduzu kontatzeko?

Nahiz eta beste bitan egin dudau hau, bitxia da entrenamendu faltak nola eramaten zaituen ohitura zaharretara. Lehenengo egunetan nire aurreiritziekin harritu naiz, komertzio batzuetan automatikoki euskara erabili dut nire iruditerian euskalduna behar duelako leku horrek. Beste batzuetan ez, bitan harripatu nau ustekabea, aurrekoek txapa jarrita zeukaten eta nire buruari onartu nion bietan gazteleraz ekingo niola txaparik ikusi ez banu. Lehen bi egunak txipa jartzeko izan ziren. Orain (azaroak 28) automatizatu dut eta espero dut hamabigarren egunetik aurrera irautea.

Ahalduntzeaz hitz egiten da asko. Feminismotik hartutako kontzeptua. Paralelismoak egin dituzu?

Lehenengo egunean kalera atera eta hainbeste jende txaparekin ikusita martxoaren 8an jantzi genuen besoko moreaz gogoratu nintzen. Babes moduko bat, konplizitate moduko bat badago. Uste dut azken urteotan euskalgintzak eta feminismoak elkarrengandik edan dugula. Ahalduntzea terminoa da euskalgintzak batik bat hartu duen terminoa. Ez dakit euskalgintzak zenbateraino uler dezakeen termino hori. Funtzionatzen du lehen esan dizkizudan gauzengatik: zapalduaren konplexutik ziurtasuna eta zilegitasuna ematen duelako kasu honetan euskaraz aritzeko. Esango nuke feministak euskalgintzaren munduan ahaldundu direla, zilegitasuna, eta aitortza izan dutela, baina baita euskaltzaleok eta euskaldunok ere mugimendu feministaren barruan. Uste dut ulertu dugula zapalkuntzak mailakatu baino zapalduak elkarren beharra daukagula.

ALBERTO IRAZU:

“Gizartean esperimentuak egin behar baditugu, EITBn ere beste hainbeste egin behar genuke”

Alberto Irazu Donostiako Egia auzoan bizi da. 2016an auzoan antolatu zuten Egian Euskaraz Bizi Nahi Dugulako ekimen ait-zindariko bultzatzaileetako bat izan zen. Euskaraldian ahobizi rola hartu du.



Euskaraldian parte hartzen ari al zara?

Urte asko daramatzat nire bizitzan Euskaraldia egiten, hau ez da berria niretzat. Oso gaztetatik oroitzen dut nire burua eta nire inguruko batzuk ere bai, elkarriketa elebidunak izaten, eta gainera, ez euskaraz ikasten ari zirenekin soilik baizik eta gehiengutsuenetan euskaraz jakin arren erdaraz egiten zuen jendearekin. Txapa jarri dut beti txaparik gabe egindako zerbait egiteko. Euskaraldian, jende batek beti egin dituen gauza batzuei izena jarri zaie, eta txapa bat. Bisualizazioa positiboa gertatu da. Bai, ari naiz Euskaraldian eta ondo, baina aldaketa handirik gabe, ez da berrikuntza izan niretzat. Berrikuntza da ikustea hainbat jende txaparekin, Egia auzoan adibidez, poz hori daukat.

Euskaraldia hasi bezperan espermentua egin zenuen.

Nire liburuaren aurkezpen-mintegia egin behar nuen Tabakaleran [Donostia]. Hamar bat lagun elkartu ziren eta ni pozez zorutzen ikusleen artean bi punki zeudelako, eta esan nuen nire artean “zein ondo, bi hauek euskara, rocka, fanzineak-eta entzutera etorri dira”. Halako batean eskua jaso zuten eta esan zuten: “Aizu, gu Melillakoa eta Zamorakoa gara eta euskararen arrastorik ere ez daukagu”. Momentu batean zalantza sortu zitzaidan, jende horri ere komunikatu nahi nion bertsoarritza, rocka, fanzinea. Zer egin genuen? Ikusleen artean zeuden pare bat laguni aldi bereko itzulpena egiteko eskatu nien. Xuxurlatuz aritu zitzaizkien. Hitzaldia euskara hutsez egin nuen, tarteka-marteka esaldi batzuk erdaraz sartu nituen beraiekiko konplizitatea erakutsiz.

Gertaera hau kontatu dut, zeren irudipena daukat Euskaraldiaren ondoren praktikatu beharko ditugula esperimentu berriak, esate baterako, bileretan, aurkezpenetan, nola egin euskaraz tartean erdaldunak egonda.

Beharbada xuxurlatuz belarrira, jende hori inplikatz, eta esanez “zuek hemen egonda ere egin nahi dugu hau”. Pozik geratu nintzen, ariketa polita egin genuelako. Melillakoa eta Zamorakoa etorri ziren esanez interesgarria izan zela. Erdarara pasa gabe aurrera atera genuen hitzaldia. Aurrera begira horrelako ariketak egin beharko ditugu, ahobiziak, belarriprestak, euskaraz egiten uzten diguten bihotzgoxo edo dena delakoak ditugula.


Zer du on ariketa honek?

Bisualizazioa oso positiboa da. Bere garaian, seguru asko, zuri erdaraz egiten zizunari euskaraz erantzutea edukazio falta zen, hain gutxituta eta zapalduta gaude herri honetan. Orain begi-bistakoa da horrela aritzea ez dela edukazio falta. Normalizatu egin da, izena jarri zaio. Oso positiboa da elkarrizketa elebidunak ikusgarri egitea. Hala ere, irudipena daukat batzuentzako oso ariketa zaila dela.

Ahobizi eta belarriprest rolak ditugu Euskaraldian ariketarako. Ahobizi izateko

gaitasuna duten arduradun politikoak edo euskalgintzako kideak belarriprest izatea ez al da ariketa urardotzea?

Bai, urardotze bat egon da. Baina zenbait kasutan ni ez naiz ausartzen esatera kalean nirekin dabilenari belarriprest edo ahobizi izan behar duen, zeren hau ariketa bat da non nahasten den zure indarra, zure iragana, zure inguru hurbila, nola ailegatu zaren hizkuntzara, gauza asko. Hori alde batetik, baina nik uste dut boterean dauden kargu politikoei, beren jardunarekin beren ingurua euskaraz jarri beharko luketenek, printzipioz, ahobizi izan beharko luketela. EITBk ahobizi izan beharko lukeen bezala. Esan nahi dudana da gizartean esperimentuak egin behar baditugu EITBn ere beste hainbeste egin behar genukeela. Adibidez, erdarazko kateetan, mahai-inguru bat bada, mahaikideak ahobiziak eta belarriprestak izan daitezke, eta baita euskara ulertzen ez dutenak ere. Azken horiek agian aldi bereko itzulpena izan behar dute. Esperimentatu beharko da EITBn ere. Bestela, kalean dabilenaren ahalegina ezerezean geratu daiteke. ■



Kalean da abenduko

aizu!

- Apustu etxeen hedapena, kezka iturri
- Kanariar Uharteetan lainoei ura ateratzen
- Aitzol Atutxa arin-arin
- 21. Korrika Garestik Gasteiza
- Durangoko 53. Azoka, prest!

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**

aizu.eus

Valeri Kharlamov

Begoñitaren semea

Sobietar Batasunean erlijio ofizialik izan balitz, izotz hockeya litzateke, eta erlijio horren profeta nagusia zein zen galdetuko bagenu, erantzuteko zalantzarik ez zen egongo: Valeri Kharlamov mitoa. Jende gutxi dakiena da jokalaria handi honen ama, *Begoñita*, 1937an Francoren tropetatik ihesi Santurtzikoko portutik bidalitako "gerrako haurra" zela.



Ander Leon Nanclares
@andernaiz

Enrique Zafra historialariak argitaratutako zerrenden arabera, 1937ko ekainaren 13an *Habana* itsasontzian Euskal Herritik atera ziren haur errefuxiatuen

artean Bilboko Oribe Abad anai-arrebak zeuden. Carmen, Diego eta Francisco, beste milaka bezala, Errepublikaren porrotak ekarriko zien etorkizun ilunetik aldentzeko gurasoen aldetik urrun bidali zituzten. Aita frontean hildako errepublikarra zen eta ama, militante komunista ezaguna, espetxean denbora emango zuena. Pauillacen (Okzitania) eskala egin ondoren Leningradon leho-

rreratu ziren ume gehienak eta hortik, hainbat hiritan banatu. Oribe Abad anai arrebak Moskura joan ziren.

Hamar urte pasata, Carmen Oribe, *Begoñita* ezizenez ezagutzen zutena, Sobietar Batasuneko gazte langilea zen eta igandero dantzalekura joaten zen Aeroflot hegazkin enpresako lankideekin. Bertan ezagutu zuen Boris Kharlamov, Kommunar lantegiko mekanikaria;



uste baino lehen ezkondu zaiden eta Begoñita haurdun. 1948ko urtarrilaren 14an izugarritzko elurtearen erdian, taxiak ezin aurrera eginik ibilgailuan bertan jaio zen haurra.

Ama eta jaioberria ospitalean zirela, oinez etxera zihoan Boris atxilotu zuten, lapurra zelakoan. Komisaldegian, egoera argituta, poliziekin edaten eta erretzen, haurraren izena erabaki zuen gizon hark: Valeri izango zen, Valeri Chkalov hegazkin pilotu sobietar ezagunaren omenez.

Bigarren Mundu Gerraren ostea, estalinismoa une gorenean, gogorra izan zen. Begoñita, Boris eta Valeri paneleko hormek zatitutako gela baten laurdenean bizi ziren. Valeri ume ahula eta gaixobera zen. Errazionamendu bidez banatzen zituzten elikagaiak eskasak ziren eta hotzak ez zuen osasun egoera hobetzen laguntzen. Laster arreba heldu zitzaion, Tatiana.

Frankismoko Bilbora itzulera

Stalinen heriotzak Gerra Hotza epeldu zuen eta "gerrako haurrei" Burdinazko Hesia zeharkatzeko aukera eman zitzaien. 1956an Bilbora itzuli ziren eta Valeri eskola frankistan hasi zen. Ikaskideek Rusito deitzen zioten; hain beldurgarria omen zen komunismoaren ordezkaria zen, eta gainera, hizkuntzarekin arazoak zituen. Geroko elkarriketetan, ordea, gehien markatu zuena otoitz egiteko beharra izan zela zihoen Valerik. Sobietar Batasunetik heldu berrientzat, giro frankista ez zen eroso eta zortzi hilabete pasata, behin betiko Moskura itzultzea erabaki zuten. Begoñitak bigarren utzi zuen bere sorterrira.

Valeri hockey patinak janzten hasi zen orduan, hasieran aitarenak bere zapaten gainetik jarrita, geroago bereak. Beheko kategorietan ibiltzen zenean, 13 urterekin, bihotzeko gaitza antzeman eta kirola

Ezker-eskuin: Carmen Oribe Abad, Oribe-Kharlamov sendia, eta Valeri Kharlamov Sobietar Batasuneko hockey selekzioako elastikoarekin.

Ezkerreko orrialdean 'Habana' baporea; Carmen Oribe 'Begoñita' 1937an Santurtzitik Leningradora eramane zuten ontzi hartan, Euskal Herriko beste haur askorekin, tropa faxistengandik ihesi.

uzteko agindu zioten medikuek. Aitak entrenamenduetara eramaten segitu zuen ordea, ezkutuan, Begoñitak jakin gabe. Bikotekideen arteko desadostasun hori ez zen arazo bakarra: Valeriren biografoek aitaren alkoholismoa aipatzen dute behin baino gehiagotan. Ama euskalduna harro zegoen semeak lortutakoarekin, ez ordea senarraren jokabidearekin.

Gazteen mailan hasita, 1967ko urrian CSKArekin, Ejertzito Gorriaren taldearekin egin zuen debuta Kharlamovek. Gazteegia zela iritzi zuten eta hura utzita joan zen Zvezda taldera, Uraletara. Bertan jokalaria bikaina zela frogatu zuen eta hurrengo denboraldian bere bizitza osoko taldea izango zenera itzuli zen. Laster Sobietar Batasuneko selekzioarako hautatu zuten eta hortik aurrerakoa hockeyaren historia bizia da, 17 dortsalarekin asko izan baitziren lortutako balentriak.

Neguko Olinpiar Jokoetan bi urrezko domina (Sapporo'72 eta Innsbruck'76) eta zilarrezko bat (Lake Placid'80). Munduko txapelketetan zortzi urrezko, bi zilarrezko eta brontzezko bat. Hamaika aldiz Sobietar Ligako txapeladun eta 1979ko Challenge Cupeko irabazlea. Lehenengo izan zen, AEBetako NHL ligan jokatu gabe, "Hall of Fame" jokalaria ezagunen museoan sartzen eta Kanadako profesionalen kontrako partiduan nahita lesionatu zuten irabazi ahal izateko. Estatubatuarrek 1.200.000 dolar eskaini zioten, baina Gerra Hotzaren garaian etsaiaren aldera pasatzea pentsaezina zen.

1975ean Valerik dei bat jaso zuen etxean, Irina lagun zaharrarena zen.

Haurra izan zuela eta aita bera zela jakinarazi zion. Alexander jaioberriaren aitatasuna onartu eta ezkontzea erabaki zuten. Laster alaba izan zuten, Begoñita, amama bezala. 1976an kotxe istripu larria izan zuen baina 1980ko Neguko Olinpiar Jokoetarako berriro hockeyra itzultzea lortu zuen. Hor, zilarra baino ez zuten lortu eta errudunak bilatu behar zirenez, Kharlamov izan zen seinalatua; ez zuten gehiago selekzioarako hautatu.

Autoan jaio eta hil zen kondaira

1981eko Munduko Txapelketa Kanadan jokatu behar zen eta Kharlamov ez zegoen deituta. Oporretan zela, egun-pasatik Moskura bikotekidearekin bueltan kotxez zihoala, istripua izan zuten eta biak hil ziren. Auto batean jaiotako jokalaria, autoan bizia galduta bihurtu zen kondaira.

Hil osteko omenaldiak ikaragarriak izan ziren. CSKAk eta sobietar selekzioak 17 dortsala erretiratu zuten, urtero NHLko errusiar jokalaria hoberenari ematen zaion saria Kharlamov Trophy da eta Errusiako gazteen mailako txapelketak ere bere izena darama. 2014an Valeriren bizitzaren inguruko pelikula egin zuten, *17 zenbakidun kondaira*. Duela gutxi, bere aldeko monumentua aurkeztu dute Moskuko estadio olinpikoan, eta garrantzitsuena, milioika errusiar zaletuen oroimenez geratu da.

Semearen heriotza kolpe latza izan zen Begoñitarentzat. Biloben zaintzaz arduratzen saiatu zen baina hauek aitaren aldeko amonarekin bidali zituzten. Egoerak erabat tristatu zuen eta hilabete batzuen buruan hil zen txapeldunaren ama bilbotarra. Begoñitaren biloba, Alexander maila ertaineko hockey jokalaria izan zen. Haren semeak Valeri du izena, aitonak bezala. Valeri Kharlamov berriari hockeya ez zaio gustatzen ordea, nahiago du futbola. ■

Hoteletako garbitzaileak

Bost izarreko esplotazioa

Tolesdurarik gabeko izara zuriak eta garbiak ohe gainean, usain goxoa, norbere etxean topatzea zaila den txukuntasuna. Halako ezaugarriak dituzte sarri hoteletako gelek, baina zer ezkututzen da irudi horren atzean? Feminizazioa eta prekariedade. Hala uste dute Mari Cruz Elkoro (Durango, 1969) ELAko zerbitzu federazioetako idazkari nagusiak eta Sonia San Vicente (Bilbo, 1968) Constant enpresarentzat hoteletako gelak garbitzen dituen langileak.



Malen Aldalur Azpillaga

@malenaldalur

ARGAZKIAK: ELA

Hoteletako gelak garbitzen lan egiten duten pisuko zerbitzarien egoera gero eta okerragoa da. Azken urteetan nabarmen egin du gora azpikontratutako langileen kopuruak. Lehen hotelak berak kontratatutako langileek azpikontratutako enpresentzat egiten dute lan orain: lan berbera, baldintza okerragoetan. 2,5 euro kobratzen dituzte garbitzen duten logela bakoitzeko eta 800 euroko soldata jasotzen dute hilero, kasurik onenetan, aparteko ordainsariak barne. Trukean, urtean 1.800 ordu lan egiten dituzte.

“Orain dela gutxi patronalak ateratako txosten baten arabera, laster estatuko hotelen %60 azpikontratata egongo da”, azaldu du Mari Cruz Elkoro. Datua kezkatzekoa iruditzen zaio: “Modu horretan enpresek gastuak gutxitzea lortzen dute. Jendearen lan baldintzak ikaragarri okertu dituzte”. Garbitzaileak azpikontratatea “oso merke” ateratzen zaiela uste du Sonia San Vicentek: “Derri gorrezko gutxieneko soldatatik oso hurbil dagoen ordainsariaren truke pertsona bakar bat jartzen dute bi edo hiru lagunengan lan egiten”. Elkoro gaineratu du desegonkortasun handiko kontratuak edukitzen dituztela, “orduka eta

eguneko ematen dituzte altak eta bajak eta kasu batzuetan garbitutako logelako ordaintzen dute”.

Azpikontratutako enpresek negozio handia sortu dutela ohartarazi du ELAko ordezkariak: “Azken finean, Ostalaritzako Hitzarmena inon ez aplikatzea lortzen dute, izan ere, garbitzaileenaz gain hoteletako beste lanpostu batzuk ere azpikontratatu nahian ari dira, adibidez, jatetxean edo harreran lan egiten duten langileak”. Donostian, esaterako, badaude zerbitzu guztiak azpikontratatu dituzten hotelak.

Ostalaritza Hitzarmena bermatzea ezinbestekoa dela uste du Elkoro, baina horretarako aurre egin behar zaio enpresari eta langileak egoera ahulean daudenez ez da erraza: “Familia monoparentalak, migranteak edo egoera ekonomiko larrian dagoen jendea kontratatzen dute batik bat”.

Bestalde, gaineratu du ez dela ahaztu behar sektore honetan lan egiten duen gehiengo emakumezkoa dela: “Horrek ere zerikusi zuzena du lanbidearen baldintza txarretan”. Dena den, San Vicentek dio beraien enpresan, esaterako, geroz eta gehiago direla gizonetako migranteak: “Lehen emakumeak bai-

no ez ginen lekuan orain gizonetako migranteak ere badaude, baina langileen ezaugarri komuna da gehienak egoera ahulean egotea”. Baldintzak txarrak izanagatik lana uzteko zailtasunak dituzte beharginak: “Nolabait harrapatu egiten dituzte”.

Las Kellys, bide urratzaileak

Egoera salatzeke asmoz, Espainiako Estatuan lan egiten duen Las Kellys elkarteak sortu zuten hoteletako hainbat langilek 2014an. “Estatuko sindikatuak ez zituzten aintzat hartu hoteletako garbitzaileen eskari eta aldarriak eta horregatik sortu zen Las Kellys elkarteak”, dio Elkoro. Gipuzkoan eta Bizkaian hoteletako langileen gehiengo sindikala dauka ELAK eta hemen beraiek ari dira negoziazioetan. ELAko ordezkariak nabarmendu du Las Kellys elkarteak kontzientziazioan eta ikusgarritasuna lortzen lan ikaragarria egin badu ere, zailtasun handiak dituela bere aldarrikapenak negoziazio mailara eramateko: “Ez dira sindikatu bat, elkarte bat dira eta horrek gauzak asko mugatzen ditu. Bestalde, hemen negoziazio mahaietan egunean hamalau edo hamasei gela garbitzearen inguruan eztabaidatzen ari



Bilboko NH eta Barceló hoteletako gela garbitzaileak greba egunak ari dira egiten azaroaren 2tik.

gara, hor jarri ditugu mugak. Las Kellys elkarteak, aldiz, 25 eta 30 gela inguruko ratio minimoak eztabaidatzen ari da. Egoera oso larria da”.

Langileen baldintzak hobetzeko bi-deetako bat azpikontratutako enpresei Ostalaritza Hitzarmena betearaztea da: “Azpikontratutako langileek hotelak berak kontratatutako moduko baldintzak edukiz gero, hotelari garestiago egingo zaio azpikontratatzea langileak berak kontratatzea baino”. Horixe da azpikontratazioaren arrazoi nagusia: gastuak gutxitzea. “Enpresa bat kontratatzen baduzu hoteletako gelak garbitzeko eta honek garbitzaileei miseria bat ordaintzen badie, eta gainera, pertsonako gela mordoak garbitzen badute, gastuak murrizten dituzu”.

Gutxi batzuek Ostalaritza Hitzarmena aplikatzea lortu dute

Duela lau urte hasi ziren San Vicente eta bere lankideak sindikatuarekin harremanetan. Hainbat negoziazioren ondoren, aurrerapausoak lortu dituztela dio:

“Ostalaritzako Hitzarmena aplikatuko digute eta noizbait enpresak hotela utziko balu, hoteleko langile zuzenak izatera igaroko gara”. Pozik dago lortutakoarekin, halako lorpen bat irudikatzea beraientzat ezinezkoa zatekeen lehen: “Duela lau urtera arte enpresak ez zigun sindikatueta izena ematen uzten, ezta inori gure lan kontratua erakusten ere, orduan ohartu ginen gure eskubidea zela eta saretu eta sindikatuarekin harremanak egiten hasi ginen”. Hala ere, badaki egoera ez dela berbera langile guztientzat: “Langileak lekuz asko aldatzen dituzte beraien arteko sarerik ez sortzeko. Gu leku berean mantendu gintuzten, eta elkartu eta gure eskubideen alde borrokatu ginen, orain akats horretatik ikasi dute, eta ez dut uste gehiago langileen sareak osatzen utziko dutenik”. Bat dator horretan ELA sindikatua ere: “Constant enpresak langileak zentroz aldatzen ditu lan-harremana finkatu ez dadin. Adibidez, Barceló hotelak 350 gela garbitzeko lau langile zituen kontratu finkoarekin. Greba bezperan

Constant enpresak aldi baterako kontratu batzuk mugagabe bihurtu zituen, baina oraindik ere egoera irregularrean daude beste asko”.

Dena den, lan baldintzak hobetzea soldata igotzea baino askoz gehiago dela dio San Vicentek: “Gure lana oso gogorra da. Egunean hemezortzi logela inguru garbitzen ditugu eta zama handia jaso behar izaten dugu. Gainera, baditut lankideak 25 edo 30 gela ere garbitzen dituztenak egunean, onartezina da”. Elkorok dio hori dela sindikatuen landu nahi duen hurrengo puntua: langileen osasuna. Mutualitatara joatea edo baja hartzea oso gaizki ikusita dago: “Gainera, lana galtzeko arriskua daukazu”. Azken hilabeteetan lortu dituzten aurrerapenekin pozik dago San Vicente, baina badaki lanean jarraitu beharko dutela: “Ostalaritzako Hitzarmena sinatzea lortu dugu, orain betearaztea falta da”.

Horren adibide izan zen azaroaren 2an Bilboko NH eta Barceló hoteletako logelak garbitzeaz arduratzen diren



langileek hasi zuten greba mugagabea. Bi hoteletako zuzendaritzek beharginen grebarako eskubideari muzin eginez, kanpoko enpresa baten zerbitzua kontratatu zuten grebalariak ordezkatzeko. Onartezina, ELAren ustez: “Langileak defentsarik gabe uzten dituzte eta Lan Zuzendaritzak eta Ikuskaritzak ez dute neurririk hartzen”.

Hoteletako jabeen eta erabiltzaileen kontzientziarazioa garrantzitsua dela uste dute. Elkorok dio hotelek ez dutela azpikontrataturako enpresek langileei jar-tzen dizkieten baldintza txarren ardura-dun izan nahi: “Esaten digute beraiek ez dutela horretan zerikusirik”. Erakunde publikoei dagokienez kritiko azaldu da ELA: “Eusko Jaurlaritzaren arduradun baten ustez greba *kutrea* da, MTV-Bil-boren irudia zatartu zuelako. Agian, horregatik, Eusko Jaurlaritzak ez du azkar esku hartzen hotel horiek grebalariak ordezkatu eta greba eskubidea urratzen dutenean. Gure agintarientzat sobera da-goena ez da esplotazioa, jendea antola-tzea eta protesta kalera eramatea baizik”.

» **SONIA SAN VICENTE, LANGILEA:**
 “Langileak lekuz asko aldatzen dituzte beraien arteko sarerik ez sortzeko. Gu leku berean mantendu gintuzten, eta elkartu eta gure eskubideen alde borrokatu ginen. Orain akats horretatik ikasi dute eta ez dut uste gehiago langileen sareak osatzen utziko dutenik”

» **MARI CRUZ ELKORO, ELA:**
 “Azkenean Ostalaritzako Hitzarmena inon ez aplikatzea lortzen dute”

Erabiltzaileei dagokienez aldiz, San Vicentek uste du denetik dagoela: “Las Kellys elkartearen borroka puri-purian egon zen garaian animo mezuak uzten zizkiguten erabiltzaile batzuek, beste batzuei, noski, ez zaie batere in-porta”. Baina hotel bat aukeratzera-koan erabiltzaileek kontuan izaten al dituzte langileen baldintzak? Elkorok azaldu du Las Kellys elkarteak proiektu bat zuela esku artean: “Apkazio bat sortu nahi zuten agerian uzteko zein hotelek betetzen zituzten gutxieneko eskubide ekonomiko, sozial eta mo-ralak eta zeintzuk ez”. Ideia ona irudi-tzen zaio San Vicenteri, nahiz eta segu-ru dagoen ez dietela hori egiten utziko. Elkarre espainiarrak dokumental bat ere osatu du: *Hoel Explotación: Las Kellys*. Georgina Cisquilla da egilea eta hoteletako pisuko zerbitzarien erreali-tatea ikusaraztea eta kontzientziatzea da helburua. Ikusteko irrikan daude Elkorok eta San Vicente. Bitartean, ka-lean jarraituko dute euren eskubideen alde borrokan. ■

NOR DA HILTZAILEA? **ANOPHELES**



**Nagore Irazustabarrena
Uranga**

@irazustabarrena

Erroma, 1899ko abenduaren 4a. Giovanni Battista Grassi (1854-1925) zoologoa buru zuen ikerlari taldeak jakinarazi zuen malaria kutsatzeko bidea anopheles eltxoa zela. Horrenbestez, historiako hiltzailerik handienetakoren aurkako frogak lortu zituzten –edo hobe esanda hiltzailearen konplizearen aurkakoa, plasmodium parasitoek eragiten baitute gaixotasuna–.

Antzinaroan uste zuten gaixotasunaren kausa ur geldiak zirela; hortik datorkio malaria izena (italieraz, “aire txarra”). XIX. mende amaierarako aspaldi susmatzen zuten hura ez zela benetako jatorria, baina susmagarri nagusiaren aurkako frogarik ez zeukaten. Grassiren taldeari bururatu zitzaion boluntario osasuntsu bat erabiltzea eta kutsatutako eltxo batek hel ziezaion uztea. E-maila positiboa izan zen ikerlarientzat; ez hainbeste malaria harrapatu zuen boluntarioarentzat.

Baina frogak hura ez zen behin betikoa. Garai hartan Erroma paludismoaren arrisku eremuaren barruan zegoen, eta posible zen boluntarioak gaixotasuna beste bide batetik hartu izana. Arrisku txikia zuen eremu batean lortu behar zuten malaria kutsatzea. Horregatik, Grassik kutsatutako hainbat eltxo bidali zituen Londresera, Patrick Manson (1844-1922) mediku eskoziarraren la-



VIDYA RAJA

borategira. Mansonen seme Thurburn izan zen kasu honetan boluntarioa. Bera ere medikuntza ikaslea izaki, xehe-xehe jaso zuen gertatutakoaren berri: “Lehenengo eltxoak uztailaren 5ean iritsi ziren. Egoera kaskarrean zeuden (...) Bigarren bidalketa abuztuaren 29an iritsi zen, eta eltxoek etengabe heldu zidaten eskuetan (...). Irailaren 13a bitartean ederki nengoen. Goiz hartan makal sentitu nintzen eta 4:30etan oheratu nintzen, buruko min handiz, hotzikarek, ahul, bizkarreko eta hezurretako minarekin eta sukarrarekin”.

Handik bizpahiru hilabetera Grassik jakinaraziko zuenez, erruduna identifikatu zuten zalantza izpirik gabe. Baina ahalegin horrek ez zuen merezitako saririk izan.

Thurburn Mansonek hilgarria ez zen malaria aldaera leun bat harrapatu zuen eta bost egunetan osatu zen. Handik gutxira azken azterketak gainditu eta mediku titulua lortu zuen. Baina bi urte geroago hilko zen halabeharrezko tiro batek jota.

Grassik Nobel saria irabazteko aukera handiak zeuzkan ikerlan horri esker. Baina hilabete batzuk geroago Ronald Ross (1857-1932) bakteriologoa ondorio berdinerira iritsi zen eta, iraganeko tirabira batzuk medio, azkenean eskoziarrari eman zioten saria 1902an.

Eta Grassiren lanak nahiz ondoren iritsi diren guztiek paludismoa murriztea lortu arren, erruduna oraindik ez dago erabat kontrolpean; 2016an malariak 216 milioi pertsona gaixotu zuen, eta 445.000 hil. ■



FUNDACION DE FERROCARRILES ESPAÑOLES

Trenbideko langileak frankisten jomuga

2011n Aranzadiko kideek 59 gorpu gordetzen zituen 1936ko Gerra garaiko hobia ireki zuten Burgosen. “Trenbideetako langileen hobia” esan zioten, huraxe baitzen hildakoen lanbidea. Eta ez zen kasualitatea izan, trenbideko langileak izan baitziren frankisten errepresalia gogorren jasan zutenetakoak. Langile borroketa parte hartu ohi zuten, menderakitzak eta

setatiak ziren eta frankistek sektorea garbitu behar zuten. Francisco Polo historiariaren arabera, 83.000 langile kaleratu zituzten, sektorean aritzen zirenen %88. 6.800 espetxeratu zituzten, 100 inguru heriotzara kondenatu eta ez dakigu zenbat hil zituzten inolako epaiketarik gabe. Berriki, Madrilgo Atocha geltokian haien omenezko eskultura bat jarri dute. ■

Upol eta ailara



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

ARGAZKIA: JUANMI

Gaztaina hazitu da gaztainondoetan, *Castanea sativa*, eta joan da gaztainazitua. Hala deitzen dio urriari Saldiasko Jurdaneko Dolores Ezkurra Etxekole-neak. Jurdanea Saldiasko Karrika Nagusian dago. Karrika berean goraxeago ari da bere seme Eneko Mitxeo, Tolarea etxea zaharberritzen. Etxea galanta eta ikaragarritzko lanak hartu ditu Enekok, baina egoskorra izaki, eta hor ari da ttarraka-ttarraka; zuraje, harrije eta teilaje onenekin hezten ari den alaba balitz bezala.

Etxe tzarrera inguratzen garenero Tolarea izena errotuko lukeen arrastoren baten bila jartzen gaitu bazterrez bazter. Berak, egunero buru-belarriak erne buru-belarri ari denak, ez badu arrastorik topatu guk sartu-ateran aurkituko dugulakoan... Eguna joan eta eguna etorri,



Saldiasko Tolarea etxearen izena errotuko lukeen arrastorik ez du topatu bertako seme Enekok. Atzo arte. Hor bidali du bertan azaldu den haritz (Quercus robur) ohol baten argazkia.

ez du arrastorik topatu. Atzo arte. Hor bidali dit bertan azaldu den haritz (*Quercus robur*) ohol baten argazki sorta.

Ohol berezia da. Ez da handia, metro eta erdi eskas da luze, eta ez da arra bete zabal. Oholaren alde berean, bi muturrak janak ditu, txistuan, lantzerka ahopilduak, ertzean ahopilo zorrotz samarra dutelarik. Itxuraz upola da. Sagar-dotarako ontzi baten ohol: upola, upel-ohola, upelgaia edo upa-ohola.

Ontzi baten upola bada, gutxi-gehiago kobatua behar du bi zentzuetan: luzetaka eta zabalka. Izan ere, ohol hori bezalakoek ontzien ingurua osatzen dute, bi buruek ixten duten bueltakoa. Borobila izateak eta erdi aldean sabel tankerakoa izateak nahitaez dakar upolak forma hori izatea. Ohol hori zuzena da bi eratara, luze-zabal. Ohol zuzenak upelaren

buruan izaten dira. Enekorena buruko upola da.

Ontziaren bi buruak, txotxerako zipotza, kanila edota leihoa izaten dituen alde borobil hori eta inguruko upolak elkartzen diren tokiari "kardia" esaten zaio. Buruko oholen ertzeko lantzerak txertatzeko upolak erretentxo bat izaten du, upolak biltzen dituzten inguruko uztaiak estutzean negarrik ez izateko moduan itxi dadin. Ondo esanda, Tolarea etxearen garaiko ontziren baten upola bada, uztaiak ez, baizik eta ailarak. Edo zumitzak ote? Alde bakarra ala biak landuak izatea dute aldea.

Ontzi batena bada, tamainagatik upel batena izan daiteke. Hogeita hamar edo berrogei karga sagarren, 9.000-12.000 kiloren muztioa hartzeko adinakoa; 5.000-6.000 litro ingurukoa. ■



Goizper Group

Elkarlanean garatzen

Goizper, 50 urte baino gehiago berrikuntzak egiten eta ingurumenarekin konprometituta.



Industrial



Inhinztadura



Bioteknologia



MUTUR BELTZ ELKARTEA

Artzainak artistak dira Karrantzan



Garazi Zabaleta

@tirikitran

ARGAZKIA: JUAN GAMIOK UTZIA

2015ean ekin zioten Joseba Edesa Portillok eta Laurita Siles Ceballosek Mutur Beltz proiektuari. Karrantzako ardi arraza horren eta artzaintzaren desagertzea ekiditea dute asmo. Ardiari lotutako lau alorretan banatzen da elkartearen jarduna: esnea, haragia, artilea eta artea. Alor guztiak elkarri lotuta daude ordea, eta helburu bera dute: Karrantzako ardi mutur beltzaren balioa berreskuratzea.

Artzaintza ere badelako artea

Hiria eta landa ingurua elkarrengandik geroz eta urrunago daudela ikusita, bi aldeak gerturatu eta elkarren arteko hartuemana sustatzea da kideen asmoe-tako bat. "Guk artea eta kultura erabiltzen ditugu jendartean eragin eta zer pentsatua emateko, landa inguruaren eta hiriaren arteko distantziak txikitze-ko. Beti pentsatu izan da batzuk artea egiten dutela eta besteek artisautza. Batzuk azkarrak direla eta besteak tuntu-nak. Banaketa zurrin hori gezur hutsa da", azaldu du Edesak.

Haustura horri aurre egiteko ekimene-tako bat da, esaterako, ardi mutur beltza sustatzeko herrian egiten duten azoka. Duela zenbait urtera arte betiko azoka



bazen ere, bestelako ikuspuntua gehitu diote azken edizioetan. "Orain, egun horretan artistaren lana eta artzainare-na uztartzen ditugu, maila berean jar-tzen ditugu artista eta artzaina, biak dira protagonista". Artzaintzari lotutako eki-menak gaiarekiko lotura duten arte era-kusketekin uztartzen dituzte. Artzainen topaketa artistikoak eta Ondo Bizi arte egonaldiak ere antolatzen dituzte Mutur Beltzeko partaideek.

Zer gertatzen da artilearekin?

Haragia eta esnea dira ardi arraza hauei etekina ateratzeko bide ohikoenak, eta produktu horien sustapenean ere ari da lanean Mutur Beltz. Baina bada beste lehengai bat garai batean oso estimatua zena eta gaur egun hondakin gisa tratatzen dena: artilea. "Artilearen ikuspuntua beti izan da ehungintza, eta gure artileak ez du kalitate onik horretarako. Gogorragoa da, iragazgaitzagoa, eta beraz, bestelako erabilerak sustatu behar ditugu", dio Edesak. Oraingoz, Karrantzako artzain gehienek artilea jasotzen ari dira izan ditzakeen erabilerari berriak aztertze-ko. Abian daude jada ikerketak. ■



Tolosako Babarruna

BERTAKOAK
GUREAK
GOZOAK
KALITATEZKOAK

Hoberenak soilik
aukeratzen ditugulako

☎ 943 650 253

www.tolosakobabarruna.eus

azoka

NOLA SALDU GAUZAK AZOKAN: Sartu argia.eus/azoka helbidean, eta klikatu "Saldu" botoia. Bost minutuan jar daiteke edozer salgai Interneten, denen eskura.

ARGIA JENDEARENTZAT MUSUTRUK: ARGIAko komunitatearen arteko harremanak indartzeko, besteei zerbait emateko aukera dugu. Ostegunero 10:00etan izaten da txupinazoa: ARGIA Jendeak musutruk hartu ditzakegun gaiak publiko egiten diren unea.

www.argia.eus/azoka • [@argiaAzoka](https://twitter.com/argiaAzoka)

Era guztietako **salgaiak** aukeran: ikus-entzunezkoak, mahai-jolasak, argitalpenak, laminak eta mapak, gorputzarentzakoak, bitxiak, eskulangintza, jantziak...

87
salgai

INOR EZ DA ILEGALA POLTSAK

Poltsa hau erosita 2 euroko ekarpena egingo diozu Bilboko Mbolo Moye Doole elkarteari. Migratzaileen kooperatiba martxan du orain elkarteak: garbiketa, zaintza, mudantzak... zerbitzuak eskainiko ditu kooperatibak.

Leloa euskaraz eta Senegalgo wolof hizkuntzan dago.

Koloreak: Kalabaza, grisa eta harria.

Neurriak: 41 cm x 37 cm.



8 euro

34
gai
musutruk

Abenduaren 13an, 10:00etan...
ARGIA Jendearentzat musutruk jarriko ditugu argia.eus/azoka webgunean.
Ez da zozketa, azkarren ibiltzen denak eramango ditu!



Bizi Baratzea lamina 41 eta 42

Ainara Azpiazu Axpik eta Mattinek eginiko lamina originalak. Neurriak: 35 x 50 zm.



Bilboko Kafe Antzokian bazkaria

Bi lagunentzako otordu goxoa giro ederrean.

Hartu parte Argia Sarietan



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Zuk proposatutako komunikazio lana izan daiteke 2019ko Argia Sarietarako aukeratua. Saritua. Ezagutzen duzu gure kazetaritza saria jaso dezakeen ikus-entzunezko saiorik? Prentsa idatziko lanik? Irratsaiorik? Interneti lotutako emankizun edo orrialderik? Komunitatearen iritzi eta proposamenak jaso nahi ditu ARGIAk, datozen Argia Sariak denon artean banatzeko.

Esana dago lehendik ere 2019 urte berezia izango dela ARGIArentzat. Mendeurrena dugu eta lantaldea buru-belarri dabil urteari forma eman nahian. Baina jada urteroko zita bilakatu diren Argia Sariak ere hirugarren hamarkadarako saltoa emango dute 2019an, eta aukera aprobetxatu nahi da 30. urteurrena ere ospatzeko. Urte borobila, dirudienez. Edo borobildu beharreko urtea, akaso. Urteurrenean zenbaki borobila tokatzen denean ospakizuna borobiltzen saiatzen baikara denok.

Kasu honetan Argia Sariak borobiltzeko formula komunitateak saridunak aukeratzeko prozesuan parte-hartzea da. Ez 30. urteurrenarekin asmatutako formula, 29.aren, baizik. Baina balio du borobiltzeko. Eta aukeraketa sistema errepikatzea da formulak funtzionatzeko duen seinale. Eta ez da marroia zuei pasatzeagatik, irakurle, ARGIAko lantaldeak 2018ko sariak banatu bezain pronto heldu datorren urteko saridunak bilatzeari. Aztarrika dabilta zer topatuko, hau entzun, bestea irakurri, hura ikusi... Baina denok dakigu, geroz eta begi gehiagok begiratu errazago ikusten dela. Laguntza bila jotzen dugu zuengana, gure begiak Euskal Herriko txoko guztietara ailegatu ahal izateko.

Gogoratu, euskarazko kazetaritza eta komunikazioa saritzen da, atal hauek banatuta: prentsa saria, irratia, ikus-entzunezkoak, internet eta sus-

tapen ekintza. Hainbatetan, halaber, Merezimenduzko saria ere banatzen dugu, euskal kulturen edo euskal gizartean nabarmendutako pertsona, lan edo proiektua. Saritu daitezke lan zehatzak, saioak, sekzioak, hedabideak, pertsonak, proiektuak...

Ezagutzen al duzu horietako atalen batean koka daitekeen hautagairik? Bidali pertsonaren edo proiektuaren izena, zergatik sarituko zenukeen argudiatuta oirureta@argia.eus helbidera. Zure hautagaia izan daiteke 2019ko Argia Sarietako saridunetako bat! ■

ZABALDU EUSKARA GUREKIN *Santurtzin*


Jose Miguel Barandiaran kalea 12
48980 Santurtzi, Bizkaia

E admin@santurtzieus.com
T 944 61 02 15



Santurtziko Udal Euskaltegia

Bertsolaritzaren bilakaera genero ikuspegitik infografia



Bertsolaritzan emakumeen* lanari esker jazo eta garatu diren aldaketa, lorpen, bizipen, proiektu, bertso, saretze eta gaitzailak gertaera esanguratsu eta eraldatzaileen bilduma grafikoa da.

Prezioa: 8 euro, bidalketa gastuak barne.

Neurriak: 59,4 zm x 85,1 zm.

Egileak: Ainhoa Agirreazaldegia, Uxue Alberdi, Miren Artetxe eta Ane Labaka bertsolariak eta Txakur Gorria kolektiboko Malen Amenabar eta Mariñe Arceo.

Banatzailak: ARGIA, Berria, Jakin eta Lanku. Hauen webguneetan dago salgai.

AGENDA

Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen "Musua" emanaldiaren aurkezpena. ARGIAren alde, Usurbilen

- Abenduaren 15ean, larunbata, Usurbilgo Oiaro Kiroldegian. ARGIAren Adiskideak Usurbilgo Taldeak antolatuta. Bi saio izango dira: 16:00etan eta 18:30ean.
- Sarrerak: aurretik 7 euro, bertan 8 euro (urtebete arteko haurrak doan). ARGIAren Azokan dagoeneko eros ditzakezu (azoka.argia.eus), eta emanaldiaren sarreraren zure izenean prest izango dituzu.
- Beste salmenta puntuak: Usurbil: Bordatxo taberna eta Marije arropa denda. Lasarte: Artizar taberna. Hernani: Leokadisti liburu denda. Astigarraga: Ikatz taberna. Urnieta: Ezeiza taberna. Martutene: Arantzazuko Ama Ikastola. Zumaia: Tipitaki kafetegia.

Komikia leku bila, hitza nagusi den kulturean

Durango Azokak euskal kulturaren mundutxoan elkartzen duen egunotan, liburuak, liburuak eta liburuak izango ditugu hizketarako gai, letrak, letrak eta letrak. Eta irudiak zer? Loraldi txiki bat gertatzen ari da euskarazko komikigintzan edo, zabalago esateko, literatura grafikoaren alorrean. Aurtengo zenbait nobedade interesgarri aipatu nahi ditugu ondorengo lerroetan, hizkiak bakarrik erabiliz, hori bai.



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

“Komikizaleoi oso gutxitan gertatzen zaigu gustuko ditugun autoreak gure hizkuntzan irakurtzeko aukera izatea eta horregatik, autore interesgarri bat plazaratzen den bakoitzean, eta hura, beste behin ere, frantsesez, edo gaztelaniaz, edo ingelesez, edo beste edozein erdaratan irakurri behar izaten dugun bakoitzean, beti galdera bat eta berbera etortzen zaigu burura: ze astro-gurutza-

keta gertatu behar da hemen gu besteen pare jarri ahal izateko eta gure hizkuntzan halako deskubrimenduak egin ahal izateko?”, galdetu zuen Garbiñe Ubeda idazle, kazetari eta Euskal Idazleen Elkarteko presidenteak Zerocalcare komikigile italiarraren *Hondamunean* liburuaren aurkezpenean. Kuestioak bi erantzun posible dauzka: bat Ubedak berak eman zion prentsari Donostiako Komikigunean, mahaiaren albo banatan zeuzkalako gurutzatu diren bi astro, David Zapirain eta Koldo Izagirre, zeintzuei esker izan den posible komiki hau italieratik euskarara ekartzea eta publi-

katzea Farmazia Beltza argitaletxean, gaztelaniazko itzulpenari aurrea hartuz eta ia-ia frantsesezkoaren ere berean jarri euskal irakurlearen eskuetan.

Baina galderak –gogoratu: ze astro-gurutzaketa gertatu behar den komikiak gure hizkuntzan irakurtzeko– eduki zezakeen beste erantzun posible bat gutxienez, kazetariari eskatzen ziona euskal komikigintzaren une honetako argazki bat egiteko; hori bururatu zitzaion prentsaurreko hartan esaten ari zirenak koaderno txikian zirriborratzen ari zen bitartean. Burua altxa zuen, horrek pentsatzen lagunduko balio bezala,



Dani Fanoren 'Migel Marmolen hamaika eta bat jaiotzak' da aurtengo komiki-uztak utzi duen ale esanguratsuenetako bat.

eta hara non ikusi zuen Dani Fano ondo-ko aulkian. Irakurriak zizkion *Teleatoi* eta *Anubis 3.0* eta bazekien argitaratu berria zuela *Migel Marmolen hamaika eta bat jaiotzak* Astiberri argitaletxearen eskutik.

Amua bota zion: "Aizu Dani, zer iruditzen Durangoko Azokaren bueltan publikatuko dugun aldizkarirako galdera batzuk egingo banizkizu?". Eta hemen gaude, aste pare bat geroago, egunero-ko martxa itoari ordu laurden lapurtuta telefonoz hizketan, publikatu berri duen El Salvadorreko iraultzaileari buruzko liburuz.

Euskaraz eta erdaraz batera

Esplikatu digunez, ozeanoaren bestaldean ere argitaratu da, Hitzaren eta Iru-diaren Museo salvadortarrari esker. Esperientzia berria da Fanorentzat, orain arte ia dena euskaraz argitaratu izan baitu. "Oso mundu ezberdina aurkitzen ari naiz". Adibide bat: liburuaren aurkezpenera Euskal Herrian bizi diren salvadortarrak etortzea, hango pertsonaia historikoa hemendik nola kontatzen dugun jakin nahian edo. "Gainera, Astiberri sekulako ahalegina egiten du euren produktuak beste hainbat hizkuntzetan ere saltzeko. Frantsesez, italieraz edo

ingelesez mugitzeko aukera handia daukazu, horretan oso trebeak direlako".

Bi hizkuntzatan argitaratzea eta normalean euskaraz funtzionatzen ez duen argitaletxe baten eskutik: esperientzia horrek badu antzekotasunik Maite Mutuberriak aurtengo bizi izan duenarekin. *Lohia* argitaratu zuen udaberrian Errioxako Pepitas de Calabaza editorialarekin, nobela grafiko bat edo, tira, nobela ilustratu bat; baina ez, ez da hori ere, ea, mezu bat bidaliko diogu galdezka, gure azalpena trakets samarra izango da-eta: "Gustatzen zait sailkatzen erraza ez izatea, ez dut uste irakurleek sailkapenik

» **DANI FANO:**

“Duela gutxi entzun nion Iratxe Retolazari euskal kultura hitzari eta hizkuntzari oso lotuta egon dela, bai ahozkoari eta bai idatziari; ez horrenbeste irudiari”



behar dutenik. Agian sailkatzea egileon, liburu-denden eta kazetarien kontua da bakarrik. Krisialdi baten koaderno da *Lohia*, koaderno intimoetan jaio zen eta forma hori mantendu du: marrazkiak, zirriborroak, aipuak, ohar txikiak, argi-ilunak...”. Aurtengo nobedadeen artean sorpresetako bat izan da krisi pertsonal baten berri ematen duen lana, *rara avis* bat euskarazko argitalpenen artean. Eta gaztelaniaz ere plazaratu denez, bakoitzaren harrera nolakoa izan den jakin nahi izan dugu: “Sumatu dut hemen harridura handiagoarekin jaso dela, ziurrenik nire aurreko lana gehiago ezagutzen delako. Hainbatek esan dit ez zutela nigandik horrelako marrazkirik espero, nik ordea, oso nire sentitzen dut liburu hau”.

Bi esperientzia positibo beraz, euskal zirkuitutik kanpoko editorialetan: hori izan daiteke bideetako bat hemengo irudigileek gehiago publikatzeko? Ez dago hain konbentzitututa Mikel Begoña: ibilbide luzeko komikigilea da, iaz *Bertsolari* aldizkariaren eskutik argitaratu zuen *Arditutakoak* du azken erreferentzia oraingoz, eta azken sei urteetan *Komikeri* blogean euskarazko ekoizpena gertutik jarraitzen ari da. Paco Rocaren *Zimurak* edo Peetersen *Pilula urdinak* aipatu ditu, Astiberrik argitaratuak biak, baina gaztelaniazko edizioak baino beranduago. “Interesaren parte handi bat galdu egin dute. Lanak ezagunak dira gehienetan”, esplikatu du e-postaz bida-

li diogun interrogatorioari erantzunez. “Aldi berean kaleratzen direnean ere, uste dut euskarak galdu egiten duela, askoz gehiago promozionatzen direlako gaztelaniazko produktuak. Euskarazko edizioak gaztelaniazkoen suzedaneok baino ez direla ematen du askotan”.

» **Apustuak onartzen dira**

Ikuspegiak ikuspegi, gauza bat dago argi: literatura grafikoa euskal argitaletxe gehienek eskaintza ez da oso zabala, saiakerak egin diren arren. Alberdaniak duela ia hamar urte *Ihes ederra* (Hedoi Etxarte, Alain Urrutia, 2009) argitaratu zuenean bazirudien ildo baten hasiera izan zitekeela, baina gerora ez zuen jarraipenik izan, argitaletxeak izan zituen gorabeherak tarteko.

Fanoren ustez, Txalaparta argitaletxea izan daiteke salbuespena orokorrean komikiaren alde fitxa askorik jokatzen ez duen erruleta editorialean. “Duela gutxi entzun nion Iratxe Retolazari euskal kultura hitzari eta hizkuntzari oso lotuta egon dela, bai ahozkoari eta bai idatziari; ez horrenbeste irudiari. Ez dakit hori izango den esplikazioa”. Arrazoi ekonomikoak ere ez dira baztertzekoak, Begoñaren arabera: “Komikiak kaleratzeak kostu handiagoa dauka

» **MAITE MUTUBERRIA:**

“Marrazkiek aukera eman didate hitzen bidez atera ezin nituenak adierazteko, modu zintzoagoan gainera. Askotan hitz egitean edo idaztean gehiegi pentsatzen dugu; marraztean aldiz, intuitiboagoak gara”

» **MIKEL BEGOÑA:**

“Aurreko urteetako tendentziari eutsiz, aurtengo uzta ere oso ona dator, bai kopuruaren aldetik, baita kalitatearen aldetik ere”



liburu arruntak kaleratzeak baino, eta salmenta baten porrota diru galera handia da argitaletxeentzat”. Hortaz, erronka irakurle-kopurua handitzea da haren ustez.

» **Eppur si muove**

Ei, baina zertan ari gara? Azken urteetan zerbait berria sumatzen hasi gara esan nahi genuen erreportaje honen bidez, lehen ez bezalako dinamismo bat dagoela alor honetan azkenik, eta gure gabeziekin bueltaka hasi gara batiere konturatu gabe. Ea, zenbaki batzuk: 2012tik gaur arte komikien ekoizpenak gora egin du, 2017an argitaratutako titulu-kopurua hirukoitza izateraino, Begoña egindako jarraipenaren arabera. “Aurtengo uzta ere oso ona dator, bai kopuruaren aldetik, baita kalitatearen aldetik ere”. Pozteko moduko kontuak dira, “baina” batzuekin bada ere –beti daukagu halakoren bat, ai–: produkzio horren parte esanguratsu bat Gregorio Muroren Harriet argitaletxeak bultzatu du, aurren bederatzi album publikatuko baititu eta iazko 30 liburuetatik ere zortzi editorial horren lanari zor zaizkio. “Orain arte oztopo guztien gainetik ibili da –eta komikiak merkaturatzeko bidea oztopoz gainezka dago–, baina Harriet Ediciones-ek bere martxa noiz arte mantenduko duen ez dakigu”.

Badaude beste ezaugarri batzuk ordea, pentsatzeko literatura grafikoa azkenaldian indar pixka bat hartuta ibil-

tzeak badituela oinarri sendo samar batzuk, ez dela kasualitatearen emaitza. Ikastolen Elkartearen ekimenez argitaratzen den *Xabiroi* aldizkariak irakurle berriak ekarri dizkio euskal komikiarri; horiek zenbat diren neurtzen zaila da, baina hori bezain argi dago beste albo-efektu bat ere eragin duela: egileen sare bat antolatu da aldizkariaren inguruan, erregulariki elkarren berri dutenak; eta gainera, komikiekin harremanik ez zuten egileak ere ekarri ditu generora. "Harkaitz Cano, Eider Rodriguez, Arantxa Iturbe, Pako Aristi, Iban Zaldia... komikira erakartzeak beste foku bat jarri digu", Fanoren ustez.

Irudiek errealitateaz esan dezaketena

Asmo eta joera desberdinekoak izanik, azkenaldiko zenbait publikazio batzen dituen ezaugarria da errealitateak elikatzen dituela marrazkien bidez kontatzen diren istorioak. Begoñak dio nobela "BIOgrafikoa"-ren alorrean –Adur Larreari zor diogu espresioa– aurten aparteko lanak argitaratu direla, Asisko Urmenetak Agosti Xahoren bizitza kontatuz osatu duen *AztiHitza* (Erroa)

» *Xabiroi* aldizkariak egindako lanak fruituak eman ditu: irakurle berriak ekarri ditu euskal komientzat eta, batez ere, egileen sare bat sortu da proiektuaren inguruan

eta Mikel Santos "Belatz"-ek Lucio Urtubia ekintzaile anarkistaren ibileren inguruan osatu duen *Gerezi garaia* (Txalaparta), adibidez, Fanoren azken lanaz gain.

Autobiografikoa da Mutuberriaren *Lohia* ere. Zergatik? "Marrazkiek aukera eman didate hitzen bidez atera ezin nituenak adierazteko, modu zintzoagoan gainera. Izan ere, askotan hitz egitean edo idaztean gehiegi pentsatzen dugu; marraztean aldiz, intuitiboagoak gara", erantzun digu. Badirudi egile askok bat egiten dutela iritzi horrekin,

geroz eta gehiagotan ikusten baititugu liburu-dendetan komiki autofikziona-tuak, baita bineten bidez kontatutako kronika periodistikoak ere: bizipen pertsonalak, kazetaritza edo historia; fikzio hutsa baino, egilea edo haren inguruko komunitatea lehengai gisa duten narratibak.

Lohia-ren kasuan proiektuaren abiapuntuan zegoen benetako zerbait kontatzeko asmoa, "nire egunerokotasunetik jaio eta aldi berean edonork ulertu eta sentitu zezakeen istorio bat" osatzea zen abiapuntua. Filosofia horren aldekoa da Fano ere: "Oso naturala da zerbait kontatzerako orduan inguratzen zaituzten historiak kontatzea". Komikigile donostiarraren ustez, denetarik egiten ari da orain komikiaren alorrean eta literatura grafikoa izan daiteke modu bat "eredugarriak edo nobeleskoak iruditzen zaizkigun bizitzak kontatzeko".

Kazetaria behintzat konbentzitu dute: denbora pixka bat gehixeagorekin ibiliko balitz, erreportaje hau bera ere komiki formatuan publikatuko zuen. Astro batzuk gurutzatu beharko dira oraindik hori gertatu ahal izateko. ■



Durangoko Udala
Euskara Saila

Euskarak 365 egun

Euskararen jatorria, Pello Mari Otañoren biloba *Beltxak* azaldutako zientzia fikzioa



Azaroaren 29an aurkeztu zuten Zizurkilen *Gu ta gutarrak* ipuina, Euskaraldiaren barruan. Argentinako zientzialari handienetako bat zen Magdalena Moujan Otaño 1965 aldera idatzi zuen eta Xalbador Garmendiak itzuli. Aukera baliatu dugu Joxin Azkue eta Julian Arrastoarekin biltzeko: hauek dira Pello Mari Otañoren Argentinako garaia argitu eta haren bertso ondarea berreskuratu dutenak.



Estitxu Eizagirre Kerejeta

@eeizagirre

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Magdalena Moujan Otaño 1926an jaio zen Argentinako Pahuajón herrian. Pello Mari Otaño bertsolari ospetsuaren biloba zen, bertsolariaren alaba zaharrena zen Teresaren alaba bakarra. Aitonarekin harremanik estuena hiru bilobek izan zuten, eta haren herrimina eta Euskal Herriarekiko maitasuna jaso zituzten hauek, baita haren ondare literarioa zaindu ere. Aitonak ezizen berezi bana jarri zien: Magdalena etxe-koentzat *Beltxa* izango zen, Susana Ardanaz Otaño *Txuri* eta Héctor Ardanaz Otaño *Nere*.

Magdalena Moujan Otaño zientzia munduko eminentzia bat izan zen Argentinan.



Matematikan doktorea zen, hainbat unibertsitatetan *Honoris Causa*, ikerlaria eta Energia Atomikoaren Batzorde Nacionalean zein Buenos Aires probintziako Energia Zuzendaritzan lan egin zuen. Argentinaren programa nuklearra osatzeko kalkulu matematikoak berak egin zituen. Baina izen handia lortu zuen, baita ere, literaturan: zientzia fikzioa idazten zuen. Bere lanak Argentinako hainbat antologieta argitaratu dira, besteak beste, Jorge Luis Borgesenen alboan. *Gu ta gutarrak* ipuinak 1968ko Argentinako zientzia fikzio alorreko ipuinen Sari Nagusia eskuratu zuen.

Ipuinaren ibilbidea zentsuran barna

Herrialde Katalanetan kokatutako zientzia fikzioa

eta fantasia aldizkaria zen *Nueva Dimensión* eta 1970ean argitaratu nahi izan zuen *Gu ta gutarrak* ipuina. Inpren-tatik aleak atera eta banatzeko zorian zirela, Manuel Fraga Iribarne Informazio ministro frankistak zenbaki hori bahitu egin zuen, "Espainiaren batasunaren aurkako atentatu egitea" egotzita.

Ia 50 urtera, Zizurkilgo Hernandorena Kultur Elkartek ipuina argitaratu du eta Zizurkilgo Udalaren laguntzaz, etxe guztietara helaraziko dute. *Aiurri* hedabideak ere Aiztondo bailarako bere harpidedunen artean banatuko du. "Hori da guk Euskaraldiari egin diogun ekarpena", azpimarratu dute Hernandorena elkarteko kide Joxin Azkue eta Julian Arrastoak. Liburua alde batetik euskaraz irakur daiteke, eta atzealdetik hartuz gero gazteleraz, Moujan Otaño



idatzitako jatorrizko ipuinari leku egin baitiote. Liburuaren itzulpena zendu berri den Xalbador Garmendia Etxeberriak eginikoa da eta Maria Altuna Lizarragaren ilustrazioek jantzita dago. *Gu ta gutarrak* ipuinarekin batera, liburuan bildu dituzte Moujan Otañok bere bizitzako azken urtean euskarari idatzizko maitasun gutuna.

Euskararen jatorriaz zientzia fikziozko ipuin umoretsua

Gu ta gutarrak ipuinak umore handiz lantzen du euskararen jatorriaren enigma. Bikote euskaldun batek Malagako Palomaresera egingo du eztei-bidaia, eta bete-betea blaituko ditu AEBetako armadako hegazkinak isuritako hidrogeno-bonben erradiazioak. Ipuina zentsuratuko zuen Fraga Iribarne bera ere bainatu zen bertako hondartzan, herritarrak arriskurik ezaz konbentzitzeko. Fragari ez dakigu baina ipuineko protagonistei onerako eragin zien erradiazioak, eta beren seme-alabak super-gaituak aterako dira: neurritz gora indartsuak eta neurritz oso gora adimentsuak. Haietako batek denboraren makina asmatuko du, eta Orioko Altxerri koba inguruetan, garaiz garai atzera eta atzera egingo dute familiak, proiektu zientifiko horretako langileek eta *Txuri*, *Beltza* eta *Nere* txakurrek, euskararen jatorriaren bila. Ipuinaren amaiera biribilak sorpresan harrapatuko du irakurlea. Ipuina erreferentzia historikoz josia dago, eta kristautasunarekiko debozioa ere oso modu agerian adierazten du.

Otañotarren ondarea

Hernandorena Kultur Elkarteko kideek berreskuratu dute Pello Mari Otañoren Argentinako ondarea. Antonio Zavalak bi liburuki marduletan jaso zuen Zizurkilgo bertsolari sendiaren berri. Baina jakina denez, Pello Mari Otañok Argentinara jo zuen eta hango lorrazak jarraitzea argentinarren esku utzi zuen Zavalak. Azkueren ustez, "Otañok Zizurkildik Donostiara alde egin zuen bere familia liberala zelako eta hemen gaizki ikusia zegoelako. Handik Ameriketara joan zen, desertore moduan. Eta Argentinan, bizitzan zehar, ideologikoki bilakaera izan zuen. Liberal izatetik, Kubako gerran espainiarren aldeko izatetik, Sabino Aranaren lanak ezagutu ostean abertzale internazionalista bukatu zuen. Bera hil ostean argitaratu zen bere azken bertsoan, Argentinak lortutako Espainiarekiko independentziaren lehen mendeurrena goraipatu eta 'Euskal Lurra eta katibu dauden guztien' askatasuna aldarrikatu zuen Pello Mari Otañok".

Hara nola ekin zioten Otañoren Argentinako berri bilatzeari, Azkueren hitzetan: "Gure alaba Argentinan ari zen ikasten, eta suertez jakin genuen Otañoren biloba bat bizirik zegoela. 2009an joan ginen Argentinara, Susana Ardanaz Otaño *Txurirengana*. Hasieran oso jarrera formala erakutsi zuen, 'nire garaia pasa da, Euskal Herrian izan naiz pare bat aldiz baina dagoeneko horiek denak hil dira...'. Oso ulergarria, ordurako 80 urte zituela kontuan hartuta, baina pixkanaka ireki zen eta gaiarekin erabat bero bukatu

» *Gu ta gutarrak* ipuinak 1968ko Argentinako zientzia fikzio alorreko Sari Nagusia eskuratu zuen. 1970ean argitaratu nahi izan zuten Katalunian baina Manuel Fraga Iribarne zentsuratu zuen. Fraga bainatu zen Palomaresko istripu nuklearra du abiapuntu euskararen jatorria azaltzen duen ipuinak



tradebi@tradebi.com

PELLO MARI OTAÑOREN ONDOAN HOBIRATUA

Magdalena Moujan Otaño Beltxak azken urteak Mar de Platan egin zituen eta 2005ean hil zen, 79 urterekin. La Platako hilerrian hobiratu zuten. Hura izan zen pista Azkuek eta Arrastoak Pello Mari Otañoren gorpua aurkitzeko. Izan ere, ordura arte Euskal Herrian inork ez zekien non zeuden bertsolari handiak Zizurkilgo bere jaiotetxearen aurreko gaztainondoan utzi nahi zi-



tuen hezurak. Horrela kontatu dute Azkuek eta Arrastoak hilobia aurkitu zutenekoa:

“Pello Mari Otañok Argentinan mila ofizio egin zituen. Langosta izurritearen kontrako lan bat egitera joan zen Rosariora, gaixotu, eta hil zen. Rosarion lurperatu zuten, han hil zelako. Rosarioko Euskal Etxearekin jarri ginen harremanetan eta esan ziguten familiako norbaitek eramana zuela handik beste hilerriren batera. La Platan begiratzea erabaki genuen, bere ondorengo familia han bizi baitzen (Txuri, Beltxa, Nere...). La Platako hilerria mundu bat da, handia. Fitxategian fitxaz fitxa bilatu behar genuen. Noizkoa zen galdetu ziguten. Noiz hila zen bagenekien, baina La Platako hilerrian noiz sartu zuten ez. Halako batean gogoratu ginen Beltxak bere aitonaren ondoan lurperatu nahi izan zuela. Beltxa noiz hil zen bagenekie-nez, bere fitxa begiratu genuen, eta horrela topo egin genuen otañotarren nitxo-hormarekin. Batean dago Beltxa, eta beste batean dago ‘aitona eta amona’ jartzen duena”.

zuen, biok seme moduan zaindu gintuen. Familiarekin hitz eginda dokumentuak lortu zituen, eta pixkanaka puzzlea lotu genuen. Otañok Argentinan bizi izandako urte horiek argitara ekarri genituen”.

Lau liburu historikorekin egin zuten topo Argentinan: Bat *Oroimenak*

zen, Otañok bere bertsoak bertan idazten zituen. Bitxia da familiarentzat liburu horren izena *El Libro Atado* (lotutako liburua) zela, sokaz bildua zegoelako, eta liburu historikoa zen familiarentzat. Otañok liburu horretan 1894an idatzi zuen lehen bertsoak argi adierazten du

bere asmoa:

*Ikusirikan ugaritutzen
dijoazkidala lanak
eta ahaztutzen dirala noizbait
izkribatzen ez diranak,
liburu hontan jarri nahi ditut
gogoratzen zaizkidanak,
gaur edo bihar nere semak
ikasi ditzaten danak.*

Bigarren liburua aurkitu zutenekoa ez du ahazteko Arrastoak: “Pello Mari Otaño euskara irakasle aritu zen Argentinan. Txurirekin paper zaharrak begiratzten ginel, halako batean paper bat atera zuen. Begiratu, eta deklinabide bat! Liburuxka bat zen, berak idatzitako *La Cátedra del Bascuence*, deklinabide osoa zuena, atalka. ‘*Si yo hubiera podido ser*’ gaztelera, eta ondoan baliokidea euskarazkoa. Gaztelera ere ederki menderatzen zuen hark. Eta klaseak ere markatuta zituen: abenduak 4, ikasgai hauek, ‘superlatibo...’. Abenduak 7, beste hauek. Euskara irakasteari utzi omen zion, ikaslerik joaten ez zitzaiolako. Ez da harritzekoa, irakasteko modua ikusita. Guretzako zaila bada, haientzako zer behar zuen...”. Beste bi liburuak Buenos Airesen argitaratuak ziren: 1904ko *Alkar*, bere olerki hautatuen bilduma eta *Poesías Vascas*, Argentinako La Euskaria elkarteak 1906an antolatutako literatura lehiaketan aurkeztutakoa.

Txuri hil zenean, bertsolariaren oroimenak Argentinako ondorengoetan segidarik ez duela ikusita, familiak Zizurkilgo Hernandorena Kultur Elkartearen esku jarri zuen Pello Mari Otañoren ondarea; lau liburuak eta *Gu ta gutarrak* ipuina. Ahalik ongien kontserbatzeko eta herritar denen eskura jartzeko, Koldo Mitxelena Dokumentazio Zentrora eraman zituzten. ■



Principal Antzokiak 100 urte Gasteizen



KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Handik gatoz



Igor Estankona

Nazien kontra borrokatu zen, koronelek gero bere poesia debekatu zuten, etxe barruan atxilotua egon zen, eta hala ere bere borroka kanta arnasa bezain naturalak, lasaiak ditu: “Nor geratuko ote da hemen gu oroitzeko/ entzun ditzagunean giltza sarrailean eta kate luzea/ arrastaka amaigabeko zurirantz, non, alde batean,/ artean kea baitario bota dugun azken zigarretari”.

Grezian denak daroa tradizioaren zama. Aurretik klasikoek idatzi zutena berriro klasiko bihurtzeko gaitasun itzela izan dute hango poetek. Sikelianosen eta Kazantzakisen irrintziak, Elitisen barkuen oihal zuriak itsaso urdinean, Seferisen su barea... *Munduko Poesia Kaierak* delakoetara Joannes Jauregik orain dakarkiguna Yannis Ritsos handiaren (Monembasia, Peloponeso, 1909 – Atenas, 1990) poemen selekzioa da. Guztiz fin itzulia, guztiz fin hautatua: “Etorri nintzen muinora; geratu nintzen, ingurura begiratu, eta deiadar egin nuen./ Behean, harriak harrien kontra amildu ziren”.

Egeo itsasoaren gainetik hegazkinean miriada bat irla ikusten da. Txikienek ere osotasuna irudikatzen dute. Eta handienak eternoak dira, baina era berean berdeak. Ritsosek berak ere laburbiltzeko eta sententziak idazteko joera dauka. Inoiz, oster, “idazmahai beltz irarria, zilarrezko bi argimutilak,/ haren pipa gorria. Besaulkian eserita dago, ia ikusezin...” hasten da esaten eta kapaz da hamabi poema idazteko Kavafisentzat. Esan liteke Ritsos kontatzen ari zaigula Iliada, eta era berean lirikoa eta arina duela ahotsa.

Poesia kaiera

YANNIS RITSOS

Itzultzailea: Joannes Jauregi

Susa, 2018

*Yannis Ritsos greziar poeta
(Monembasia, Peloponeso;
1909-Atenas; 1990).*



Agian iradokitzen duen irrealitatea egiazkoa delako-edo, berdin ekar ditzake Grezia zaharreko argazkiak gaur egunera zein gaur-gaurko gaiak jantzi mitoaren erretorikarekin: “Zure lira eta burua soilik iritsi ziren/ Lesbosera,/ korrontearen indarrez. Zertarako, bada, zure kantua?/ Beharbada noizbait (eta orduan ere itxuraz) lotu zirelako argia eta iluna?/ Edo Musek zure Lira zintzilikatu zutelako izarren artean?/ Konstelazio honen azpian, uda honetan, pentsakor bizi gara”.

Oraina eta lehena, biak dira Ritsosen poesian klasiko: istorio epikoak eta poema lakonikoak gurutzatzen diren lekuan ibili gara antologia honetan barna. Kondentsaturik eman zaizkigu mendeak eta segundoak. ■

» KONTZERTUA

Leonore kementsua



Montserrat Auzmendi del Solar

Fidelio

BEETHOVEN

Bilbao Orkestra Sinfonikoa.

Zuzendaria: Juanjo Mena.

Bilboko Operaren Abesbatza.

Zuzendaria: Boris Dujin.

Eszena zuzendaria: José Carlos

Plaza. Bakarlariak: Elena Pankratova,

Peter Wedd, Tijl Faveyts, Anett

Fritsch, Sebastian Holecek, Mikeldi

Atxalandabaso.

Euskalduna Jauregia. Bilbo

Azaroaren 24a.



OLBEk Bilbon antolatutako Beethovenen 'Fidelio' operako partaideak.

Esan ohi da Beethoven misogino bat zela. Maitale asko izan zituela, bata bestearen atzetik, baina berak buruan zuen andre ideala ez zela berarentzat existitzen, eta, beraz, emakume errealak gorrotatzen zituela. Hori asko esatea da. Oso erraza da holako teoria bat eraikitzea pertsona batez maitasunezko kontuak gaizki joan zaizkionean. Agian dibertigarria da holako burutazioak egitea historian hain garrantzitsua izan den pertsonaia bati buruz.

Baina kontu horien guztien gainetik konpositorearen obra aztertu beharko genuke, eta hori egiten badugu ikusiko dugu Beethovenek emakumeari omenaldi ederra egin ziola *Fidelio* operarekin. Opera honetan kartzela, iluntasuna, askatasun eza, opresioa eta gaiztakeria aurkitzen ditugu, eta hori guztia apurtzen dituen emakume bat da. Fidelio (Leonore gizonez mozorrotuta) edozein gauza egiten du bere senarra salbatzeko eta lortu egiten du. Beethovenek ez du emakumea ikusten bigarren mailako izaki bezala. Leonore-Fidelio izugarriko indarra du edozein oztopo sahiesteko. Badaki zer nahi duen eta borrokatu egiten du lortu arte.

Maisulan ederra da *Fidelio*. Esan daiteke Beethoven klasizismo hutsetik erromantizismora pasatzen dela lan honekin. Orkestrazio aberatsa eta erakargarria du obrak eta aria zoragarri eta benetan zailak aurkitzen ditugu bertan.

OLBEk ekarritako produkzioa, Sevillako Maestrantza Antzokiarena, eszenaratze adierazkorra du, nahiz eta guztiz soila. José Carlos Plaza eszena zuzendariak gordintasunez islatzen du ziega krudel hori, eta ondo "mugitzen" ditu pertsonaiak.

Beharbada, alderdi makalena bakarlariena izan zen. Elena Pankratova sopranoak ahots perfektua du teknika-ren aldetik, baina adierazkortasuna falta izan zitzaion Leonore gertu eta haragitsu bat egiteko. Peter Wedd tenoreak salbatu egin zituen bere partituraren deabruzko zailtasunak baina hotz utzi gintuen. Tijl Faveyts baxuak Rocco sinesgarria interpretatu zuen, baina interpretazio onena Sebastian Holecek baxu-baritonoak egin zuen, Don Pizarro rolean, boteretsu eta kementsua. Anett Fritsch (Marzelline) eta Mikeldi Atxalandabaso (Jaquino) distiraz aritu ziren, bestalde. Eta Juanjo Menaren zuzendaritza, bikaina. Jo zituzten bi oberturak, hasierakoa eta bigarren ekitaldikoa, disfrutatzeak izan ziren. ■

Ondo pasa zutelako pasatu genuen ondo

ONDORENGOAK (ZIRIKA ZIRKUS)

Noiz: Urriaren 6an.
Non: Altza (Donostia).



Imanol Epelde Pagola
@27zapata

Igande arratsaldea eta Altzara joan ginen gure bi urteko semea eta biok. Antzerkia ikustera. Edo hobe esan, haur antzerkia deiturikoa ikustera. Oso garbi jakin gabe, haur zeri deitzen zaion. Asmakizunak diren bezala haurrentzako janaria (pasta eta arroza tomatearekin soilik?), haurrentzako musika (Anari ezin dute eurek entzun, ala?) edo haurrentzako arropa (neurria da haurrei axola zaion bakarra, ez zein itxura daukaten). Haurrek kontu garrantzitsua goak darabiltzate buruan. Terrenalagoak nahi bada, funtzionalagoak.

Abiatu ginen bada abiatu Zarauztik Altzara oso garbi jakinda nork erabaki zuen haur antzerkia deiturikoa ikustera joatea: nik. Egiari zor, bi urteko ume batek ez duelako bizitza ez beste ikuskizunik behar. Euren gorputza eta inguruak miatzearekin entretenitzen dira. Haur batentzat gainera, familiakoak dira kantari onenak, ezaguna duten norbait. Eta hara ba. Erronka zail horri erantzun behar izan zioten Zirika Zirkusekoek.

Lau zirikatzaile artista jendaurrean. Ziento erdi bat ume begibelarri prest.

Guraso zenbait ere bai. Ze batzuk, egon izan ez balira bezala. Edo hobe izan ez balira. Umeak aurreneko ilaretan utzi eta atzealdean eserita mugikorrarekin aritu baitziren, adibidez futbol talde kuttunaren markagailuak freskatzen, edo Betfair apustu jokoetan hordagoka, edo laneko korreoan begira, astelehena eta lanak igande arratsaldeak ere hartu ditzakeelako. Smartphonetatik. Gero umeei esango diegu ez egiteko negarrik, zintzo demonio geldirik egoteko, aurrera begiratzeko kopon, hasi dela hasi ikuskizuna. Umeentzat. Baina jendaurrean denok gaude. Eta ordukoan, lau zirikatzaile. Lau artista langile onena jendaurrean emateko prest.

Eta jakin zuten, asmatu zuten, umeen arretari heltzen. Helduak ere parte izaten. Eta stop txiki bat orain. Zergatik ez da inoiz guraso boluntariorik agertzen hala eskatzen dutenean? Ezin gaitezke bihurtu gu ere obra? Zergatik daramagu lotsa horren korapilatuta? Noraino daramagu errotua erridikuloa?


Zirika zirkusak hori eta horrelako galderak sortu zizkigun isilean-isilean,

zeharka-zeharka. Aitortza batetik hasita. Urduri zeudela haiek ere. 200 urte baino gehiagoko zirku-familia tradizio bateko oinordekoak direlako. Ondorengoak. Lehengusuak. Eta orain eurek dutelako ardura ikuskizuna sortzeko. Mezu bat oinarrian: ikusleek ondo pasatzeko, eurek ere ondo pasatu behar dutela.

Nire gustura gehiegi definitu gabeko pertsonaiak ikusi genituen. Egiten musika, uztai jokoak, akrobazia, pailazokeriak... Xume eta entretenigarri. Nire gusturako argiztapenari arreta handirik jarri gabe, atrezoa gehiegi landu gabe, musikarekin gehiegi asmatu gabe. Niretzat. Gure mutil kozkorak ez baitzuen horrelakorik faltan bota. Nor aspertzeko gara beldur? Eurak ala gu? Eta orduan etorri zitzaidan gogora ea ikuskizuna umeentzat izanda, nire begietatik begiratu behar ote nuen ala umeenetatik. Baina hori egiteko kapaza nola ez naizen oraindik, nire barruko umeak eta nik egin dugu gaur ere hitz. Esateko arratsalde polita pasatu genuela eta Zirika Zirkuseko artistek ondo pasatu zutelako, pasatu genuela guk ere ondo. ■



Hitz gezidunak



Sudokua


Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3 koadro bakoitzean errepikatu gabe.

9		7					1	3
				2				9
	5				3		4	
		1	8		6			
6		8				5		4
			7		9	1		
	4		6				2	
5				7				
2	1					3		5

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Solas-gaia, esamesa.
2. Oparu.
3. Tentel, motel.
4. Mezkirizko auzoa (Nafarroa).
5. Ar sortzaileak.



Ebazpenak

9	6	7	8	4	2	7	6	5	9
8	3	4	1	2	7	6	5	9	4
1	5	2	7	6	5	9	4	7	
4	9	1	8	5	6	3	7	8	4
6	7	8	2	3	1	5	9	4	
3	2	5	7	4	9	1	8	6	5
7	4	3	6	1	5	9	2	8	
5	8	9	6	3	7	2	4	1	5
2	1	6	4	9	8	3	7	5	
6	4	9	8	3	7	2	5	1	5

5x5:
1. Autua, 2. Ugari, 3.
Taket, 4. Ureta, 5. Aitak.

[illegible]

Pilar Mayo. Skolae programaren koordinatzailea.



Pilar Mayok nahiko lukeenaren kontra, ika-mika politikoaren erdigunea hartu du azken asteetan Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren Skolae heziketa programak. Eskuin nafar eta espainiarra kristau taldeekin lerratu dira, berdintasunerako hezkuntza erasotzeko. Muturreko titularrak utzi dituzte bidean.

“Desberdinkeria eta eredu maskulinoa erreproduzitu ditu eskola mistoak”



Ander Perez

@ander_prz

ARGAZKIAK: JOSU SANTESTEBAN

Bidean mugarri

“Orain 21 urte hasi nintzen berdintasun teknikari Iruñeko Udalean, eta Nafarroako Hezkuntza Departamentuko berdintasun eta bizikidetzatza ataleko burua naiz egun. Nire ibilbidean, urrats bakoitza hurrengorako oinarri izan da. Sanferminak berdintasunean taldea koordinatzea, adibidez, garrantzitsua izan zen. 2008an lehen hezkidetzatza plana egin nuen; orduko hutsak legealdi honetako abantaila izan ditut. Hezitzaileak ahalduzten saiatu gara, eta agian asmatu dugulako sortu da sortu dena. Jende asko ari da programari eusten. Niretzat, profesionalki, mugarri bat da Skolae. Gozatzen ari gara. Une honetan, 1.400 pertsona ari dira programan formatzen. Hunkitze-ko moduko kopuruak dira”.

“Barkosek jostailu erotikoak erabiltzerak behartuko ditu 0 eta 6 urte bitarteko haur guztiak”.

Indartsu hasi gara. Uste dut, edo pentsatu nahi dut, prentsan agertu dena interpretazio oker bat izan dela. Skolae, txikitan -3-4 urtetik aurrera-, gure gorputza ezagutzeko egiten diren jolasez ari da, betidanik haurrentzako sexu jolasak (edo jolas erotikoak) deitu diren horiez. Asmoa da jolas horiek baliatu eta despenalizatzea, gauzei izena jartzen ikasteko, gure sexu organuek izena dutela ikasteko, eta argi hitz egiteko publikoan ukitu daitekenaz eta ezin denaz, norberak jakin dezan nahi ez duen zerbait egitera behartzen dutenean zerbait gaizki dabilela, eta esan behar duela. Horretaz ari gara. Ez dugu eskolara eramango helduontzat jolas erotikoa den horrekin zerikusirik duen ezer. Horregatik, berriro diot, pentsatu nahi dut irakurketa okerra izan dela, baina egin duenak jakin beharko luke irainduta sentitu direla kalitatezko sexu heziketa egin nahian dabilzan hezitzaile asko.

Irakurketa okerra ala asmo txarrez egina?

Ez dakit zein den interpretazio hori egin duten pertsonen asmoa, eta oker bat izan dela nahiko nukeela diodanean da hala nahiko nukeelako benetan. Ez dakit gehiago, eta ez dagokit niri irakurketa politikorik egitea.

“Genero ideologia” inposatzea ere leporatu dizuete.

Berdintasun politikez ari gara, eta berdintasuna oinarritzko eskubide bat da. Oinarritzko eskubideak ez dira ideologia, gizarte osoak duen zerbait baizik. Haur guztiek dute berdintasunerako hezkuntza jasotzeko eskubidea. Hezkuntza komunitatea, kasu honetan, horretarako bitartekoak ari da jartzen. Ideologia hitza sobran da berdintasuneko hezkuntzaz ari garenean, baina genero ideologiak hitz egiteak, agian, hain justu berdintasuna ikastearen aurka dagoen ideologia bat existitzen dela erakusten du. Kasu horretan bai, ideologiak hitz egingo genuke, eta gauza larriez.



Familietan irakatsi beharreko gaiak direla ere esan dute.

Inork ez du familiak eman beharreko hezkuntza ebatsiko, hori espazio askea da. Legeak, hori bai, hainbat baldintza eta eduki betetzera behartzen du hezkuntza komunitatea eta departamentua. Berdintasunerako heziketak ez du familien espazioa inbaditzen, ikasle guztiek eduki horiek jasoko dituztela bermatzen du, haien eskubidea baita. Gero, familia bakoitzak zehaztuko ditu bere mugak.

Berdintasunerako bidean, zer da eskola?

Eskola, familia eta hedabideekin batera, sozializazio eremua da, eta ikaragarriko ardura du berdintasun ereduak transmititzeko orduan.

Baina bada ere desberdinkeriak erreproduzitzeko eremua.

Noski. Skolaerekin esku hartzen ari bagara, eskola mistoak konponbiderik ekarri ez duelako da, eredu maskulinoa erreproduzitu duelako. Eskola mistoak desberdinkeria mantendu du. Bai, inork ez du nahita desberdinkerian hezten, baina emaitzak hor daude, indarkeria hor dago, emakumeen ekarpenak ez dira aitortuak. Skolaek ez du soilik

“Genero ideologiaz hitz egiteak, agian, hain justu berdintasuna irakastearen aurka dagoen ideologia bat existitzen dela erakusten du”.

aldaketa proposatzen ikasleekiko lan egiteko moduan, baita irakasleekiko moduan ere: nola zuzentzen dira neska edo mutikoengana? Nola mantentzen da indarrean dagoen eredua? Nola erreproduzitzen dira eskolan genero estereotipoak? Irakasleagoa berrikustea da planteatzen duguna, heziketarako eragile aktiboa den heinean.

Irakurketa “okerretik” harago, zer da Skolae?

Skolae ez da sexu heziketarako programa bat. Programa zabala da, ongi baloratua, ikaslea hezkuntza sistema osoan zehar lagunduko duena, berdintasunean hezi dadin. Lau ardatz ditu: desberdinkeriaaren aurreko kontzientzia, autonomia pertsonala, ahalduntzea eta sexu heziketa zein tratatu onak. Programak ez du klasean berez ematen ez den ezer probokatuko, eta hori da, hain justu, bere gauzarik interesgarrienetako bat: eskolako irakasleek gauzatuko dute, tutoreek, ikasleak ezagutu eta noraino sartu daitezkeen ongi dakitenek.

Helburua zera da: ikasleek eraiki ditzatela haien maitasun harremanak, haien indar pertsonala, haien erabakiak, genero desberdinkeriarik gabe. Funtsezkoa da, neska-mutilek indarkeriari aurre egin eta abusuak saihestu ditzaten, eta haien sexualitatea naturaltasunez, plazerrez, zoriontasunez, arduraz eta babesarekin bizi dezaten.

Zertan da berritzailea?

Berritzailea da progresiboki lantzen dituelako edukiak, adin bakoitzerako egokituta. Berritzailea da ere derrigorrezkoa delako, eta beraz, ikasle guztiek landu beharko dutelako. Ez da irakasleagoaren militantziaren arabera izango, eta ez da eroriko urte honetan, demagun, ikastetxeak berdintasunaren ordezkartasuna edo birziklapena lantzea erabaki duelako.

Lagundu al du polemikak programa baliolan jartzen?

Berez ezagutuko ez litzatekeen eremu askotan ezagutzen da orain, baina kritikak sekula ez dira onak hezkuntza programa bati balioa emateko. Kritika soberan dago, begirada desenfokatzten duelako. Nik, erabaki ahalko banu, hau guztia pasa ez izana erabakiko nuke. ■



Korrikako kantaren bideoklipa Kepa Junkerak zuzendu du, metanfetaminak hartu ostean

Korrikaren aurtengo kantaren bideoklipak eztabaida ikaragarria eragin du sare soziale-tan eta AEK-k azalpenak eman behar izan dizkio prentsari. Hasteko, bideokliparen egilea zein den argitu dute: “Kepa Junkerari eskatu genion, hain ondo uztartzen ditu euskal tradizioa eta modernitatea, irudititu zitzaigula ondo egingo zuela”. Baina gauza eskuetatik joan zen errodatzen hasi zirenean, aitortu dutenez: “Hor denetarik hasi zen mugitzen eskutik eskura, kontrolaezin bihurtu zen trapi-txeoa. Sinetsi behar diguzue, guk Anne Etchegoyenen estiloko zerbait besterik ez genuen nahi, baina klaro, sartzen dituzu rapero batzuk eta Fermin Muguruza tartean, eta beno, ba Kepa ere erori egin



zen: bost egun lo egin gabe pasa ondoren etorri zen bideoa entregatzera, matrailezurak *twerking* egiten ziola”. Horrelakoak ez errepikatzeko, hurrengo Korrikako kanta Straight Edge filosofiarekin bat egiten duen talde hardcoretaren bati eskatuko duela zin egin du AEK-k.

SAREAN ARRANTZATUA

Eta zu, larrialdi zara?



Pazientzia, lagun, pazientzia



Gipuzkoar eta nafarren karabana Iparraldeko medikuen preserbatibo-errezeta eske

Irakurle batzuek igorritako kolaborazioa

Frantziako Gobernuak kondoiak gizarte segurantzaz sartuko dituela iragarri du eta doan eskuratu ahal izango dituzte herritarrek. Honen eraginez, Nafarroako eta Gipuzkoako jendea Dantxarinean eta Irunen elkartu da mugaz bestaldera pasatzeko asmoz. Mugarik Gabeko Kondoiak (MGK) elkarteko kide baten hitzen arabera: “Hegoaldean eskubide hori bermatzen ez den bitartean Baiona edo Maulera joaten jarraituko dugu”. Ipar Euskal Herriko mediku askok adierazi du kanpainarekin bat egingo dutela. Irunen 7.000 lagun daude jada, eta horietako batzuk, 500 inguru, mugara gerturatu ziren igandean, hesia saltatzeko asmoz. Han, Frantziako Poliziarekin egin zuten topo, negarra eragiteko gasa eta gomazko pilotak jaurti zizkien. Hainbat lagun zauritu zen; tartean, zenbait jubilatu. Karabanako kide asko deportatuak izan dira.



LANDAREAK LANTZEN 2019

LURRA LANTZEKO AGENDA-LIBURUA

HILABETEARI
LOTUTAKO LANAK
BARATZE,
FRUITU BARATZE,
LORE BARATZE
ETA BASOAN

ILARGIAREN
BI ZIKLOAK,
ONGARRIKETA,
LANDARE LAGUNTZAILEAK,
TRATAMENDU NATURALAK,
LUARRA NOLA EGIN...

Jakoba Errekondoren jakintza eta
Antton Olariagaren ilustrazioak.
Aurtengo gaia: lan-tresnak

12€

Bidalketa gastuak
4€


f t i @bizibaratzea

ARGIA
argia.eus

BIZI BARATZEA
bizibaratzea.eus

*Jakoba Errekondok
sinatzeko aukera





Lan
berriaren
aurkezpen
emanaldia

OIARDO KIROLDEGIA (USURBIL) ABENDUAK 15, LARUNBATA

bi saio: 16:00 eta 18:30

Sarrerak: aurretik 7 euro, egun berean 8 euro (12 hilabete arteko haurrak doan)

Eskuratu zure sarrera:

☎ 943 37 15 45
azoka@argia.eus

Antolatzailea

ARGIAren Adiskideak
Usurbilgo Taldea

 **ARGIA**